



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

UDALAREN OSOKO BILKURA **2004ko urriaren 28ko ohiko bilera**

BERTARATU DIRENAK **ALKATE-UDALBURUA**

EAJ-PNV.- KARMELO SAINZ DE LA MAZA ARROLA jn.

ZINEGOTZIAK

EAJ-P NV.- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jn.
EAJ-PNV.- AINARA URBIETA BERGARA and.
EAJ-PNV.- FCO. JAVIER BIDEA MOLINILLO jn.
EAJ-PNV.- BEATRIZ RESA BARDECI and.
EAJ-PNV.- BIXENTE BARREIRO ASENSIO jn.
EAJ-PNV.- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO jn.
EAJ-PNV.- JESUS BILBAO CURIEL jn.
EAJ-PNV.- GUILLERMO MATEO KAREAGA jn.
PSE-EE-PSOE.- SUSANA GONZÁLEZ RÓMULO and.
PSE-EE-PSOE.- JOSÉ M. TOLEDO CAÑAMERO jn.
PSE-EE-PSOE.- NIEVES HURTADO URTIAGA and.
PSE-EE-PSOE.- MERCEDES ANGULO ORDOZGOITI and.
PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jn.
PP.- IGNACIO GAMERO DELGADO jn.
PP.- ARTURO ALDECOA RUIZ jn.
PP.- AIALA EGUILUZ RODRIGUEZ and.
EB-Berdeak.- IÑAKI GOMENDIOURRUTIA SÁINZ jn.
EB-Berdeak.- RUBEN BELANDIA FRADEJAS jn.
EA.- ERNESTO A. TRIGUEROS S. COLOMA jn.

EZ DA BERTARATU

EAJ-PNV.- JON LOIZAGA CAYERO jn.

EUSKARA ITZULTZAILEA

XABIER PAYA jn.

IDAZKARIA

M^a VICTORIA ERKIAGA ARANGUENA and.

Leioako udaletxean, bi mila eta lauko urriaren hogeita zortziko iluntzeko zortziak direla, elizate honetako udalaren osoko bilkura bildu da ohiko bilera egiteko. **Alkate-udalburua, Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jauna** izan da bileraren burua eta **idazkariak, M^a VICTORIA ERKIAGA ARANGUENA andreak**, lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran eta egintza zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengoa osatzen dute. Alkate-udalburu jaunak aurretik egin die ohiko bileran parte hartzeko deia, guztia Toki Araubidearen oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1 artikuluan ezarritakoa, aipatutako legearen 21.1.c) artikuluan azaldutakoa eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Tokiko Udalbatzen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko araudiaren 41.4 eta 80.1 artikuluetan xedatutakoa oinarritzat hartuta.

Adierazitako orduan eta lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du; jarraian, ohiko bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dituzte:

I.- ERABAKITZEKOAK

1.- 2004KO IRAILAREN 30EKO OHIKO BILKURAREN AKTA ONESTEA: Izenburuan aipatutako bilkurako akta onetsi gabe zegoela aipatu da; beraz, udalbatzaren osoko bilkurak onesteko jarri dira.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalbatzak, osoko bilkuran eta **aho batez**, 2004ko irailaren 30eko bilerako akta onetsi du.

2.- UDALERRIAN EGITEN ARI DIREN KALE BERRIEN IZENEI BURUZKO PROPOSAMENA: 2004ko urriaren 26an Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileran onetsitako Alkatetza-Udalburutzaren 718/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Hirigintza, Etxebizitza, Garraio eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak emandako 165 zenbakidun irizpenak, 2004ko urriaren 20koak, honako hau dio:

PROMOTORA VIZCAINA S.L. merkataritza-etxearen 2004-09-24ko idazkiak (sarrera-erregistroko zenbakia: 5.296) dakarrena irakurri da. Horren bidez, HAPNko 23 B aldea-Mendibilen eraikitzen ari diren kale berriei izena jartzeko eta atariei zenbakia ipintzeko eskatu zuten.

Eskaera horri dagokionez Batzordeburuak idatzitako txostenak dakarrena adierazi da eta horrekin batera, kale berrien plano deskriptiboa aurkeztu da; MENDIBILBARRI eta MENDIBILEOSTEKOA izenak eman zaizkie kaleei. Zentzu horretan, urriaren 4ko 794/04-BT zenbakidun dekretuaren edukiaren berri eman da, bertan Cnes. Urander enpresak Artazagane, Aldekoane eta Sarriena auzoen artean kokatutako lursailetan egin dituen hiru eraikin berriei Grupo Larrakoetxeko 2, 3, 4 eta 5 zenbakiak eman zaizkie.

EAJ/PNVko ordezkariak proposamenarekin ados daudela adierazi dute. PSE/EE/PSOeko, PPko, EB Berdeak taldeko eta EAko zinegotziek azaldutakoaren jakinaren gainean geratu direla esan dute eta gai hau aztertuko den bilkuraren eztabaidan azalduko dute beren jarrera.

Hirigintza, Etxebizitza, Garraio eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak aldeko irizpena eman dio gai hau udalaren osoko bilkurara igortzeari, eztabaida eta onets dezaten, egin beharreko aldaketak egin eta gero.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia jaunak honakoa adierazi du:

Hirigintza Batzordean esan zuten moduan, ez zaie egoki iruditzen Grupo Mendibileko bi kale berrien izenak Mendibile hitzarekin hastea ere, errakuntzara eraman ahal dutelako; nahiz eta hurbileko toponimoen irizpideari jarraitzen zaion, ez zaie aproposa iruditzen. Horrenbestez, proposamen honen aurkako botoa emango dute.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Bere adierazpena ildo horretatik edo joango da ere, baina beste elementu batzuk sartuko ditu. Ondoren adierazi du duela bi urte Elexalde inguruan egin ziren kale berrietarako izen batzuk proposatu zirela ere bai eta izen toponimikoak erabili zirela kale horiek izendatzeko, hala nola, Iñaurratzaga, Estartetxe, Etxebarriena, Dendariena, eta orain, kale berrien izenak proposatu behar diren momentuan, toponimiaren irizpidea erabili dela berriro ere kaleak izendatzeko. Beraien ustez, irizpide errespetagarria da hori, baina ez dute zuzen ikusten udalerriko kaleen izenak jartzerakoan irizpide horri bakarrik ia jarraitzea. Izan ere, Leioako kale-izendegia herritarrentzako erreferentzia edo eredu izan daitezkeen pertsonen, erakundeen edo baloreen izenekin aberastu litekeela pentsatzen dute, esate baterako, terrorismoaren biktimen izenak aproposak izan litezke. Euren ustez, ikertu beharko litzatekeen ildoak da hori eta kaleen izenen proposamenek irizpide horri jarraitu beharko liezaioke, eta berriz esan dute ez zaiela zuzen iruditzen toponimiaren irizpideei bakar-bakarrik jarraitzea. Amaitzeko adierazi du Iñaki



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Gomendiurrutia jaunak esandakoaren ildotik, kasu honetan, egin den proposamena guztiz zuzena ez dela uste dutela, Mendibilbarri eta Menibileostekoa izenek errakuntzara eraman ahal dutelako. Ondorioz, proposamen zuzena ez dela uste dute eta bozketan abstenituko dira.

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak honakoa adierazi du:

Printzipioz ez dute kontrako jarrerarik hartu, baina ez dute ere proposamen hoberik aurkitu. Era berean, adierazi du Xabier Olabarrieta jaunak esandakoarekin nolabait bat datozela, hau da, behar bada toponimiaren irizpidea ez ezik beste batzuk ere erabil litezkeela kale berriak izendatzerakoan; izan ere, egon badaude oso garrantzitsuak diren pertsona batzuen izenak kale berriak izendatzeko.

EAKo Ernesto Ángel Trigueros S. Coloma jaunak honakoa adierazi du:

Aldeko botoa emango du; izan ere, toponimiakoak izateari dagokionez, Leioa Mendibile aldetik hedatzen ari da eta bertako baserriak behera botatzen ari dira; horrenbestez, baserri horiek desagertzerakoan horixe da bertako historiaz geratuko dena. Hori dela eta, proposamena oso errespetagarria iruditzen zaio eta kaleei pertsonen izenak jartzeari dagokionez, erdigunea hedatzerakoan, edo baserri historiko horiek ez dauden beste lekuetan erabil litezkeela adierazi du.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak honakoa adierazi du (euskaraz):

Bera ez zen egon Hirigintzako Batzordean baina irakurri duenez eta kontatu diotenez, antza denez zalantza batzuk egon ziren zergatik izen horiek jarri eta zergatik ez. Era berean, horren inguruan azaldu du adibidez, errotondatik aurrera zabalduko den kaleari ezin zaiola Mendibile jarri, Mendibile ez delako kalea, auzoa baizik; eta auzo horretan dagoen arazoa dela kale asko daudela izen barik eta hau da, orain planoa edo mapa buruan badaukate ikusiko dute Avanzadatik gorantz kale bat dagoela, hori da errotondatik zabaltzen dena, gero beste lau barneko kale daude, eta bi zeharkako; hori dena da Mendibile. Orduan, alde horretatik, ezin zaio luzatu den kaleari Mendibile deitu edo izen berdina eman, kale horrek ez daukalako izenik.

Bada, horregatik planteatu da kale bati izen bat ematea eta besteari beste bat; horiek dira XVII. gizalditik hona egon diren baserrien izenak, Mendibilbarri zen bat eta beste bat Mendibilostekoa. Gaineratu du oraindino Mendibilaurrekoa mantentzen dela, hau da Jauregizuria sendiaren baserria eta horrek oraindino daukala izen hori, Mendibilaurrekoa.

Errakuntza batera eraman ahal duten izenak direla aipatu da eta horri loturik adierazi du bere ustez, hizkuntzaren aberastasuna dela, eta erdaraz ere badauzkagula “Villanueva de arriba”, “Villanueva de en medio” eta “Villanueva de abajo”, eta azkenean inork ez diola errakuntzara eramaten duten izenak direnik. Berak uste du euskararen aberastasuna eta euskararen “idiosinkrasia” dela eta ondorioz, Mendibil, Mendibilbarri eta Mendibilostekoa izenetan berak ez du ikusten inolako zailtasunik.

Gaia eztabaidatu ondoren, bozkatu egin dute. Hona hemen, bozketaren emaitza:

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Bozketan aldeko hamalau boto izan dira guztira, EAJ-PNVko bederatzi zinegotzianak, PSE-EE-PSOeko lau ordezkariak eta EAKo zinegotziarena. Era berean, kontrako boto bi izan dira, EB-Berdeak taldeko zinegotzianak, eta lau abstentzio, PPko ordezkariak. Ondorioz, udalaren osoko bilkurak **gehiengoz erabaki du** udalerriko kale berrien izenei buruzko hurrengo proposamen hau **onestea**:



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

- Promotora Vizcaína, S.L. enpresak 23 B aldea-Mendibilen, Iparagirre etorbideari paralelo, sustatu dituen eraikinak eraikitzerakoan sortu diren bi kale berriei Mendibilbarri eta Mendibilostekoa jartzea.
- Construcciones Urander enpresak Artazagane, Aldekoane eta Sarriena auzoen artean kokatutako lursailetan eraiki dituen eraikinei Grupo Larrakoetxeko 2, 3, 4 eta 5 zenbakiak jartzea.

3.- HIRI HONDAKIN SOLIDOAK BILTZEKO KONTRATUA ALDATZEKO PROPOSAMENA, EDUKIONTZIAK GARBITZEKO MAIZTASUNA IGO BAITA:

2004ko urriaren 26an Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileran onetsitako Alkatetza-Udalburutzaren 715/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hirigintza, Etxebizitza, Garraio eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak emandako 166 zenbakidun irizpenak, 2004ko urriaren 20koak, honako hau dio:

Udalaren zerbitzu teknikoen bitartez jakinarazi da udalaren osoko bilkurak 2000-10-11n egindako bileran hartu zuen 5. erabakiaren bidez, UTE LEIOA enpresa-elkarteari adjudikatu egin zitzaiola hiri hondakin solidoak biltzeko eta garraiatzeko zerbitzugintzaren kontratua.

2004-09-24ko idazkiaren bitartez, edukiontzia garbitzeko maiztasuna gehitzeko ondoretarako udalaren ordezkariekin hartu duten erabakiaren printzipioaren edukiaren berri eman du UTE LEIOAK; maiztasuna astean behingoa izango da hamabost egunez behingoa izan beharrean.

Erabaki horrek kostuaren gehikuntza ekarriko du; hona hemen kostuak (BEZ barne) zehaztuta:

2004ko URTEKO KANONA	419.448,12 €
GARBIKETA MAIZTASUNAREN GEHIKUNTZA	9.785,19 €
URTEKO KANON BERRIA	429.233,31 €

Hileko faktura 34.954,01 eurokoa izan beharrean, 35.769,44 eurokoa izango da.

Hirigintza, Etxebizitza, Garraio eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak aldeko irizpena eman dio erabakiaren printzipio horren aldeko txostena egiteari, eta era berean, udalaren osoko bilkurak erabakia berretsi egin beharko du, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen testuategina onetsi zuen ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzazko Errege Dekretuaren 163. artikuluan eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.n) artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta.

Zentzu horretan kontratua aldatzeko beharrezko agiria formalizatu beharko da, eta UTE LEIOAK 391,41 euroko banku-abala jarri beharko du.

2/2000 Legegintzazko Errege Dekretuaren 93. artikuluan adierazitakoa betetzeko ondoretarako, dagokion iragarkia BAO n argitaratuko da.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

Gaia eztabaidatu ondoren, bozkatu egin dute. Hona hemen, bozketaren emaitza:

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez erabaki du** hiri hondakin solidoen bilketaren kontratuan aldaketa egitea **oneste**a, Hirigintza, Etxebizitza, Garraio eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen irizpenean azaldutakoaren arabera.

4.- ITURRIBIDE 12AN, PRENTSA-KIOSKO BATERAKO HERRI-BIDE ZATI BAT ERABILTZeko EMAKIDA KONTRATATZeko ESPEDIENTEARI HASIERA EMATEA:

2004ko urriaren 26an Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileran onetsitako Alkatetza-Udalburutzaren 721/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hirigintza, Etxebizitza, Garraio eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak emandako 168 zenbakidun irizpenak, 2004ko urriaren 20koak, honako hau dio:

Aurreko irizpen batean xedatutakoarekin bat etorrita (Iturribide 12an prentsa-kiosko baterako herri-bide zati baten emakidari titularrak egin dion ukapena onartzekoa), udalaren zerbitzu teknikoek bide-zati horren erabilera pribatiboa berriro ere adjudikatzeko baldintza-agiria egin dute.

Hirigintza, Etxebizitza, Garraio eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak aldeko irizpena eman dio baldintza-agiriaren edukien aldeko txostena egiteari, eta era berean, udalaren osoko bilkurak baldintza-agiria onetsi beharko du, dagokion iragarkia BAOn eta egunkarietan argitaratzearen bidez adjudikazio-espeditari hasiera emateko ondoretarako.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

Gaia eztabaidatu ondoren, bozkatu egin dute. Hona hemen, bozketaren emaitza:

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez erabaki du** Iturribide 12an, prentsa-kiosko bat jartzeko asmoz, herri-bide zati baten erabilera pribatiboa adjudikatzeko baldintza-agiria **oneste**a, Hirigintza, Etxebizitza, Garraio eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen irizpenean azaldutakoaren arabera.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

5.- OSTALARITZAKO ESTABLEZIMENDUAK ETA ADIZIOA SORTZEN DUTEN JOKO-ARETOAK KOKATU, INSTALATU ETA IKUSKATZEKO BALDINTZAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA ALDATZEKO PROPOSAMENA:

2004ko urriaren 20an eta 27an Hirigintza, Etxebizitza, Garraio eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak egindako bileretan hartu zituen 170 eta 178 zenbakidun irizpenen berri eman zaio udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen irizpenek diotena:

170 zenbakidun irizpena:

Udalaren zerbitzu teknikoaren bidez Batzordeko kideei jakinarazi zaie udalak ostalaritzako establezimenduak jartzea arautzen duen ordenantza aldatzera behartua ikusi zuela bere burua hainbat aurrekarik eta inguruabarrek eraginda. Izan ere, prozedura objektiboa (zozketa) sortzea izan zen asmoa, interesatu batek baino gehiagok distantzia araubideagatik elkartezinak diren espedienteak aurkezten dituztenerako; lehenengoz erabiltzeko lizentziarik ez duten eraikin berrietan kokatzeko jardueren gaineko espedienteaz ari gara.

Testu horretan 3-bis artikulua berria gehitu zen, 2002-08-13ko BAO-n argitaratu zena, hain zuzen ere. Artikuluak honakoa adierazi zuen:

“Eraikuntza berriko edo guztiz birgaitutako eraikinetan instalatu beharreko Ostalaritza Establezimenduak: Eraikuntza berriko edo guztiz birgaitutako eraikinetan instalatu beharreko jardueren eskabideen artean Distantzia araubideagatik ukitutako jarduera eskabideren bat egotekotan, eraikina lehenengoz erabili edo okupatzeko lizentzia eman aurretik onartu ahal izango dira.

Hala ere, eskabideak hartzeko eragiten duten inguruabarrek (sarrera data, etab.), ez diete eskubiderik ez eskubide igurikimenik emango eskatzaileei, udaleko agiritegian agertzeko bakarrik balioko dute.

Eraikina lehenengoz erabili edo okupatzeko lizentzia ematerakoan, aurkeztutako eskabide guztiek beren artean distantzien araubidea betetzen badute, ondore egokietarako tramitatuko dira.

Bestela, (hau da, horietako bati emandako lizentziak distantzia arrazoiengatik beste bati ematea eragozten badu), kalteak jasandako eskabideen beste zozketa bat egingo da. Hori, Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurugiro Informazio Batzordearen aurrean egingo da, eta bere xedea prozedura honen bidez, jarduera lizentzia emateko eskubidea duten eskabideak zehaztea izango da. Zozketa horretan onuradun irteten diren eskabideak berehala tramitatuko dira, eta kalteak jasan dituztenak tramiterik gabe tramitatuko dira.”

Hala ere, artikulua hori eguneratu behar dela hauteman da; urbanizazio proiektuak betetzeko eraitsi beharreko ostalaritza establezimenduak birkokatu beharra arautu ahal izateko asmoz. Kasu horietan negoziazio prozesu baten arabera, eraikin berrietara aldatzen diren establezimenduen titularrek zozketatik salbuetsita egon beharko dutela aintzat hartu da; azken batez, birkokatzeko eskubidea bermatuko baitzaie.

Une honetan 3-bis artikuluari bosgarren paragrafoa gehitzea proposatu da. Hona hemen paragrafoa, hitzez hitz:



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

“Aurreko paragrafoetatik salbuetsita egongo dira urbanizazio, birzatiketa zein desjabetze proiektu edo antzekoetako obrak burutzea dela eta, gaur egun beraien kokaleku diren eraikinak eraitsi beharraren ondorioz, birkokatu beharko diren ostalaritzako jarduerak. Kasu horietan lizentzia zuzenean emateko izapideak hasiko dira, zozketan parte hartu behar izan barik, eskabidea aurkezten den eguna gorabehera, baldin eta lehenengoz erabiltzeko lizentzia eman aurretik bada, eta ondorioz, gainerako eskabideek kasu horietaraino utzi beharreko distantzien araubidea bete beharko dute.”

Hirigintza, Etxebizitza, Garraio eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak jakinaren gainean geratu dela eta ados dagoela adierazi du irizpenean, eta era berean, udalaren osoko bilkurari espedientea bidaliko zaio, berori hasieran onetsi dezan eta jendaurrean erakutsi dadin, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoaren arabera.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

178 zenbakidun irizpena:

Udalaren zerbitzu teknikoen bidez jakinarazi da momentu honetan ostalaritzako jardueren ezarpen eta funtzionamenduari buruzko baldintzak arautzen dituen udal ordenantza aldatzen ari dela aprobetxatuz, alde betegabeetako distantzien araubidea eguneratu nahi dela.

Udalaren osoko bilkurak 2000-04-13an hartutako erabakiaren bidez, hain zuzen ere, udalerriko hazkunderen ondorioz sortu berriko aldeetan ostalaritzako establezimenduen arteko distantziak 40 metrotik 20 metrora gutxitzea onetsi zen.

Une honetan, aurrekoa eguneratzea egokia dela uste da eta beraz, sortu berriko aldean ordez orain egiten ari diren edo hemendik gutxira egiten hasiko direnak (hala nola, Mendibile, Udondoko Bulebarra, Pinosolo eta Lamiako-Txopoetako BEBPBa -Barne-erreforma eta birgaiketako plan berezia-) jartzea proposatzen da.

Ondorioz, udal ordenantza arautzailearen atal horren artikulua hitzez hitz mantendu baina erantsitako dokumentazio grafikoa eguneratzea proposatzen da. Hau da, 3. artikulua honela idatzita geratuko da:

“3. artikulua- Gutxiengo distantziak eta ordutegiak.

I eta II taldeak: Talde honetako establezimenduen artean edo talde honetako eta beste talde bateko establezimenduen artean 40 metroko distantzia. Ixteko ordua: 24:00 eta 1:30ak bitartean.

Honekin batera doan planoan mugatu diren aldeetan, distantzien araubidea 40 metrotik 20 metrora gutxitu da.

Honekin batera doan planoan adierazi den aldean ez da onartuko oinplanoaren azalera erabilgarria 50 m²-koa baino txikiagoa duen jarduerarik, ordenantza honek arautzen dituen artean.

Azken xedapena: Aldaketa hau indarrean jartzen den unetik, osoko bilkuraren 2002-04-13ko erabakiaren bidez onetsitako eta 2000-07-12ko BAOn argitaratutako ordenantza aldaketan aipatzen den plano baliogabe eta ondorioz gabe geratzen da.”



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

Hirigintza, Etxebizitza, Garraio eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak jakinarean gainean geratu dela eta ados dagoela adierazi du irizpenean, eta era berean, udalaren osoko bilkurari espedientea bidaliko zaio, berori hasieran onets dezan eta jendaurrean erakuts dadin, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Gaia eztabaidatu ondoren, bozkatu egin dute. Hona hemen, bozketaren emaitza:

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez erabaki du** ostalaritzako establezimenduak eta adizioa sortzen duten joko-aretoak kokatu, instalatu eta ikuskatzeko baldintzak arautzen dituen ordenantza aldatzea **oneste**a, Hirigintza, Etxebizitza, Garraio eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen 170 eta 178 irizpenetan proposatutakoaren arabera.

6.- 2005EKO URTARRILAREN 1ETIK AURRERA INDARREAN SARTU BEHAR DIREN UDAL-ZERGAK ARAUTZEKO ZERGA-ORDENANTZAK ALDATZEA:

2004ko urriaren 6an, 20an eta 27an Ogasun Informazio Batzorde eta Kontuen Batzorde Bereziak egindako bileretan hartu zituen 196, 205 eta 216 zenbakidun irizpenen, hurrenez hurren, berri eman zaio udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrean Alkatetzak irizpen horien gaineko ebazpenak eman izan ditu.

2004ko urriaren 6an Ogasun Informazio Batzorde eta Kontuen Batzorde Bereziak egindako bileran honako proposamen hauek egin zituen udal-zergen inguruan; eta horien guztien berri emango zaio udalbatzari, berak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan:

ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 9/1989 Foru Arauaren 14.3 artikulua honako gehieneko karga-tasa ezarri du hiri-lurreko ondasunetarako: %1,5; eta Leioako Udalean 2004. urtean indarrean egon den karga-tasa %1,03koa izan da.

Kontuan hartzen badugu 2003. urteko KPI %2,6koa izan dela, **2005. urterako zerga-tasa %1,057koa izango da**, aurreko paragrafoan adierazitako baldintzazko klausularekin.

Oraindik ez dakigunez Bizkaiko Foru Aldundiak zer-nolako igoera egingo duen balio katastroletan, honakoa proposatzen da:

A Ondasun higiezinaren gaineko zergaren tasa %2,6 igotzea 2005. urterako, hau da, %1,057koa izan dadila finkatzea, Bizkaiko Foru Aldundiak balio katastroalak igoko ez balitu.

B Zerga-tasa ez igotzea eta 2004. urtean aplikatutakoari (%1,03) eustea, Bizkaiko Foru Aldundiak balio katastroalak %2,6 baino gehiago igoz gero.

C Bizkaiko Foru Aldundiak balio katastroalak %2,6 baino gutxiago igoz gero, %1,057ko zerga-tasa aplikatuko da.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

Familia ugarietzako hobaria proposatzen da eta horretarako Zerga Ordenantzaren 19. artikuluan 4. atal hau gehituko litzateke, hitzez hitz:

Zergaren kuota osoaren hobaria ezarri da familia ugariaren titular diren subjektu pasiboentzat; hobaria kalkulatzeko beheko taula erabiliko da. Hobari horri heldu ahal izateko beharrezkoa izango da:

- 1. Higieztina subjektu pasiboaren ohiko bizilekua izatea.*
- 2. Familia unitateko kide guztiak Leioan erroldatuta egotea.*
- 3. Higieztinaren katastro-balioa 11.000 eurotik beherakoa izatea.*

SEME- ALABA KOPURUA	3	4	>4
hobaria	%30	%40	%50

Subjektu pasiboak eskatu beharko du hobaria, eta eskabide-orriarekin batera dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

- 1. Hobariaren eskabidea; hor, behar bezala identifikatu beharko du ondasun higieztina.*
- 2. Higieztinaren titulartasuna egiaztatzen duen agiriaren fotokopia.*
- 3. Familia ugariaren titulua, Bizkaiko Foru Aldundiak emandakoa (Gizartekintza Saila).*

Familia-unitatea familia ugaria den bitartean jaso ahal izango da hobaria. Subjektu pasiboak egin litezkeen aldaketa guztien berri eman beharko dio Administrazioari, eta Administrazioak eskubidea izango du hobaria emateko bete beharreko eskakizun guztiak betetzen diren ofizios egiaztatzeko. Bestalde, hobaria behar ez bezala erabili dela egiaztatzen bada, egoki diren likidazio osagarriak egingo ditu, hala badagokio, berandutza-korrituak sartuta eta gehi dagokion zigorra aurreko hori zerga-arloko arau-haustea baita. Alabaina, egokiak izan daitezkeen aldaketak egiteari kalterik egin gabe, familia ugariaren titulua iraungitzen den eguna hartuko da hobariaren bukaera-datatzat.

Irabazizkoak ez diren erakundeek eta mezenasgoari emandako zerga pizgarrien zerga araubidea ezarri zuen otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauan ezarritakoa aplikatuz, Zerga Ordenantza honen 6. artikuluko n atalean erakunde horientzako salbuespena gehitzea proposatzen da; bertan hurrengo hau agertuko litzateke:

n) Ondasun higieztinen gaineko zergatik salbuetsita egongo dira irabazizkoak ez diren erakundeek titulartasuna duten ondasunak, zerga honi buruzko araudian ezarritakoen arabera, Sozietateen gaineko Zergatik salbuetsi gabeko ustiapen ekonomikoei lotuta daudenak izan ezik.

Ezarritako salbuespena aplikatzeko, ezin bestekoa izango da irabazizkoak ez diren erakundeek otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauko 16 artikuluko 1. atalean arauturiko aukeraren erabilera Udalari jakinaraztea eta lehen aipatutako Foru Arauaren bigarren Tituluan arauturiko zerga-araubide bereziari lotutako baldintzak nahiz kasuak betetzea.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

EKONOMI JARDUEREN GAINEN ZERGA

Ekonomi Jardueren gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 6/1989 Foru Arauaren 10. eta 11. artikuluetan, gutxieneko kuotei aplikatu beharreko koefizientea gehienez ere 2,2koa izatea ezarri da; eta Leioako Udalak 1,87ko koefizientea onetsita izan du 2004ko ekitaldirako.

Koefizienteari %2,6ko igoera aplikatzea proposatzen da; beraz, koefizientea 1,92koa izango litzateke 2005. urtean.

Era berean, martxoaren 26ko 7/2003 Foru Arauaren 10. artikuluan finkatutako eragiketen bolumenaren araberrako koefizientea ere aplikatzea proposatzen da, beheko taulari jarraiki:

Eragiketen bolumena (eurotan)	Koefizientea
2.000.000,00 eta 6.000.000,00 bitartekoa	1,20
6.000.000,01 eta 10.000.000,00 bitartekoa	1,22
10.000.000,01 eta 50.000.000,00 bitartekoa	1,24
50.000.000,01 eta 100.000.000,00 bitartekoa	1,30
100.000.000,00tik gorakoa	1,30
Eragiketa-bolumenik ez	1,25

Irabazizkoak ez diren erakundeek eta mezenasgoari emandako zerga pizgarrien zerga araubidea ezarri zuen otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauan ezarritakoa aplikatuz, zerga hau arautzen duen ordenantza fiskalaren 7. artikuluari erakunde horientzako salbuespenari buruzko atala gehitzea proposatzen da; hona hemen, bertan agertuko litzatekeen testua:

i. Irabazizkoak ez diren erakundeak, otsailaren 24ko 1/2004ko Foru Arauaren 9. artikuluan aipaturiko ustiapen ekonomikoei dagokienez. Hala eta guztiz ere, erakunde horiek altaren aitortpena aurkeztu beharko dute zerga horren matrikulan, baita baxaren aitortpena ere, jarduerari amaiera emanez gero.

Ezarritako salbuespena aplikatzeko, ezin bestekoa izango da irabazizkoak ez diren erakundeek otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauko 16 artikuluko 1. atalean arauturiko aukeraren erabilera Udalari jakinaraztea eta lehen aipaturiko Foru Arauaren bigarren Tituluan arauturiko zerga-araubide bereziari lotutako baldintzak nahiz kasuak betetzea.

TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEN ZERGA

Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 7/1989 Foru Arauaren 4. artikulua ezarri du zergaren gutxieneko tarifak 2,2ko koefizientearekin gehienez ere gehitu ahal direla.

1995erako zerga-arloko neurriei buruzko abenduaren 22ko 9/1994 Foru Arauak, eta horrekin batera, Bizkaiko Lurralde Historikoko 2000. urterako Aurrekontu orokorren urtarrilaren 31ko 1/2000 Arauak, zerga honen gutxieneko kuotak ezarri zituzten. Jarraian, gutxieneko kuotak, gehienezko kuotak, 2004. urtean Leioan indarrean egon diren kuotak eta 2005. urterako ezar litezkeen kuotak (KPIren %2,6ko gehikuntzarekin) azalduko ditugu beheko taulan:



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

IBILGAILU MOTA	GUTXIENEO KUOTA	GEHIENEO KUOTA 2,2	2004. URTEAN LEIOAN INDARREAN EGONDAKO KUOTAK	2005. URTERAKO PROPOSATUTAKO KUOTAK %2,6
A) AUTOAK				
8 zaldi-potentzia baino gutxiago	12,62	27,76	21,24	21,80
8 – 11,99 zaldi-potentzia	34,08	74,98	57,30	58,80
12 – 13,99 zaldi-potentzia	71,94	158,27	118,61	121,70
14 – 15,99 zaldi-potentzia	84,14	185,11	120,88	124,00
16 – 19,99 zaldi-potentzia	89,61	197,14	150,68	154,60
20 zaldi-potentzia baino gehiago	112,00	246,40	188,35	193,25
B) AUTOBUSAK				
21 plaza baino gutxiago	83,30	183,26	139,95	143,60
21 – 50 plaza	118,64	261,01	199,38	204,55
50 plaza baino gehiago	148,30	326,26	249,28	255,75
C) KAMIOIAK				
1.000 kg-tik beherakoa	42,28	93,02	70,96	72,80
1.000 – 2.999 kg bitartekoa	83,30	183,26	139,95	143,60
3.000 – 9.999 kg bitartekoa	117,02	257,44	199,38	204,55
9.999 kg-tik gorakoa	148,30	326,26	249,27	255,75
D-) TRAKTOREAK.				
16 zaldi-potentzia baino gutxiago	17,67	38,87	29,64	30,40
16 – 25 zaldi-potentzia	27,77	61,09	46,74	47,95
25 zaldi-potentzia baino gehiago	83,30	183,26	139,95	143,60
E) ATOIAK ETA ERDIATOIAK				
1.000 kg-tik beherako zama erabilgarria	17,67	38,87	29,64	30,40
1000 - 2.999 kg bitarteko zama erabilgarria	27,77	61,09	46,74	47,95
2.999 kg-tik gorako zama erabilgarria	83,30	183,26	139,95	143,60
F) BESTE IBILGAILU BATZUK				
Ziklomotorrak	4,42	9,72	7,58	7,80
125 cc arteko motozikletak	4,42	9,72	7,58	7,80
125 cc – 250 cc bitarteko motozikletak	7,57	16,65	12,78	13,10
250 cc – 500 cc bitarteko motozikletak	15,15	33,33	25,51	26,15
500 cc- 1.000 cc bitarteko motozikletak	30,29	66,64	50,88	52,20



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

1.000	cc-tik	gorako	60,58	133,28	101,76	104,40
motozikletak						

Leioako Udalak tarifak %2,6 gehitzekotan, batezbesteko koefizientea 1,72koa litzateke; beraz, gehienez baimenduta dagoen 2,2 baino txikiagoa.

HIRI-LURREN BALIOAREN GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA

Hiri-lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 8/1989 Foru Arauaren 5. artikulua gehieneko zerga-tasa %30ekoa izatea ezarri du eta Leioako Udalak zerga-tasa hori aplikatzen duenez gero, ez da tasa eguneratu behar.

Irabazizkoak ez diren erakundeek eta mezenasgoari emandako zerga pizgarrien zerga araubidea ezarri zuen otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauan ezarritakoa aplikatuz, zerga hau arautzen duen ordenantza fiskalaren 5. artikuluan beste atal bat gehitzea proposatzen da; hona hemen, bertan agertuko litzatekeen testua:

h. Irabazizkoak ez diren erakundeak.

*Lurren eskualdatzeak edo lur horien gaineko jabetza mugatzen duten gozamen-
eskubide errealek eraketa denean, baldin eta irabazizkoak ez den erakunde batek kostu
bidez egiten baditu, zerga horretako salbuespena izateko, beharrezkoa izango da lur
horiek Ondasun Higiezinaren gaineko Zergako salbuespena aplikatzeko baldintzak
betetzea.*

*Artikulu honetan ezarritako salbuespena aplikatzeko, ezinbestekoa izango da
irabazizkoak ez diren erakundeek otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauaren 16.
artikuluan 1. atalean arauturiko aukeraren erabilera Udalarik jakinaraztea eta
aipatutako Foru Arauaren II. Tituluan arauturiko zerga-araubide bereziari lotutako
baldintzak nahiz kasuak betetzea.*

Izatezko bikoteen zerga araubideari buruzko urriaren 30eko 8/2003 Foru Araua aplikatuz, zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren 4. artikuluari atal berri bat gehitzea proposatzen da; honakoa izango litzateke atal berria:

*3. Izatezko bikoteak arautzen dituen maiatzaren 7ko 2/2003 Legean
xedatutakoaren arabera eraturiko izatezko bikotekideek, aurreko paragrafoek aipatzen
dituzten kasuetan, egiten dituzten ekarpen, adjudikazio eta eskualdatzeei tratamendu
berbera aplikatuko zaie.*

ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA

Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 10/1989 Foru Arauaren 3. artikulua zerga honen gehieneko zerga-tasa %5ekoa izatea ezarri du; Leioako udalaren osoko bilkurak 1998ko urriaren 11ko bileran onetsi zuen tasa hori, beraz, ez da tasa eguneratu behar.

Batzordeburua den EAJ-PNVko Iñaki Goikoetxea Gordo jaunak azalpen luzea eman du proposamen bakoitzari buruz.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Ogasun Informazio Batzorde eta Kontuen Batzorde Bereziak hurrengoak bidezkoak liratekeela erabaki du, Alderdi Popularreko udal-taldea tasak behar bezala aztertu arte abstenitu bada ere:

1. Bizkaiko Foru Aldundiak balio katastralak igoko ez balitu edo %2,6 baino gutxiago igoz gero, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren 2005. urterako tasa %1,057koa izatea onestea. IU-EBko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak honakoa adierazi du: Bizkaiko Foru Aldundiak balio katalaren ehunekoa igoz gero, baina KPI baino gutxiago igoko balu, Udalak Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren tasa ez luke aldatu behar. PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak, berriz, adierazi du kasu horretan Udalak Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren tasa gehitu beharko lukeela balio katalaren igoeraren eta KPIrenaren arteko aldearengatik. Batzordeburua den EAJ-PNVko Iñaki Goikoetxea Gordo jaunak adierazi du Udalak Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga KPI baino gutxiago igo duela urtetan, KPI baino txikiagoko balio katalaren igoerak onetsi izan direlako eta zerga-tasaren diferentziala igo ez delako; horrenbestez, irizpen honetan adierazitako proposamena diferentzial horiek berreskuratzeko egin du. PNV, PSOE eta EA talde politikoen ordezkariak gobernu-taldeak egindako proposamenarekin ados daudela adierazi dute.
2. Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren familia ugariarentzako hobaria irizpen honetan agertu den moduan ezartzea onestea.
3. Irabazizkoak ez diren erakundeak Ondasun Higiezinaren gaineko Zergatik, Ekonomi Jardueren gaineko Zergatik eta Hiri-lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergatik salbuetsita egotea onestea.
4. Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren koefizientearen 2005. urterako gehikuntza, %2,6koa izan dadila onestea; ondorioz, koefizientea 1,87koa izan beharrean, 1,92koa izango da. Era berean, koefizientea eragiketen bolumenaren arabera ere aplikatzea eta horretarako irizpenean azaldutako taulari jarraitzea.
5. Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergaren tarifetan %2,6ko gehikuntza onestea, baita irizpenean adierazitako kuotak ere; zergaren koefizientea 1,72koa izango da; beraz, gehienez baimenduta dagoen 2,2 baino txikiagoa.
6. Hiri-lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergaren izateko bikoteentzako aldarazpena onestea.
7. Gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipiniko da; hori guztia Toki Araubidearen Oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d) eta e) artikuluan xedatutakoa eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Tokiko Udalbatzen Antolakuntza,



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Araudiaren 50.3 eta 50.11 artikuluetan ezarritakoa oinarritzat hartuta.

2004ko urriaren 20an Ogasun Informazio Batzorde eta Kontuen Batzorde Bereziak egindako bileran honako proposamen hauek egin zituen udal-zergen inguruan; eta horien guztien berri emango zaio udalbatzari, berak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan:

1. Tasak orokorrean atalari %2,6ko gehikuntza aplikatzea (Euskal Autonomia Erkidegoko 2003. urteko KPI).
2. Agiriak egiteagatiko tasa: 40 euro kobratzea, Udaltzaingoak aseguru-etxeentzako zirkulazio-istripuei buruz egiten dituen txosten bakoitzeko.
3. Zabor-bilketa zerbitzuko tasa: Tarifei %3,5eko gehikuntza aplikatzea Garbikerren kontratuko igoeraren ondorioz.
4. Kultur zerbitzugintzako tasak; jarraian araututakoaren arabera:

LEIOAKO UDALEKO KULTUR ZERBITZUGINTZAKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA.
--

I.- XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA.-

Udal honek, Lurralde Historikoaren Toki Ogasunak arautzen dituen ekainaren 30eko 5/1989 Foru Aginduarekin bat etorruta, Eranskinean agertzen diren zerbitzuak eskaini eta jarduerak gauzatzeagatiko tasak ezarri ditu, Ordenantza honek zehaztutako moduan, aipatutako tasak Ordenantza honen parte baitira.

2. ARTIKULUA.-

Ordenantza udalerrri osoan aplikatzekoa da.

II.- ZERGA-EGITATEA

3. ARTIKULUA.-

Udal Administrazioak zerbitzua eraginkortasunez eskaini edo jarduera gauzatzea da zerga egitatea, bai horrela eskatua izan delako, bai partikularren ekintzek edo ez-egiteek zeharka horrela behartu dutelako.

III.- SUBJEKTU PASIBOA

4. ARTIKULUA.-

Zerbitzuak edo jarduerak eskatu, edo horien onuradun gertatzen diren edo horien eragina izaten duten pertsona fisiko eta juridikoak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 33. artikulua aipatzen dituen entitateak izango dira subjektu pasibo, zergadun gisa.

5. ARTIKULUA.-



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

Leioako Udaleko Kultur Sailak eskainitako zerbitzuen edo jardueren onuradunek eta sail horrek antolatutako ekitaldietara doazen pertsonak, baldin eta ekitaldi horietan tasa ordaindu behar bada, Ordenantza honen bidez arautu diren tasak ordaindu beharko dituzte.

IV.- ZERGA-OINARRIA

6. ARTIKULUA.-

Zerbitzua gauzatzen deneko unitate bakoitza izango da zerga-oinarria, dagokion tarifaren arabera.

V.- KUOTA

7. ARTIKULUA.-

Kuota zehazteko aurreko artikulutik ateratzen den oinarriari dagokion tarifa aplikatuko zaio.

VI.- SORTZAPENA

8. ARTIKULUA.-

Tasa zerbitzua edo jarduera egiten den unean bertan sortzen da.

VII.- LIKIDAZIOA ETA DIRU-SARTZEA

9. ARTIKULUA.-

Udal Administrazioak kontzeptu bakoitzarengatik egokia den likidazioa egingo du eta likidaturiko zenbatekoa eskudirutan sartuko da, tarifetan azaldutako ordainarazpen bakoitzaren arau berezien arabera.

VIII.- AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau eta bere Eranskina XXX(e)an onetsi dira behin betiko; Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, XXX(e)an indarrean sartuko dira, eta horrela jarraituko dute harik eta beraiek aldatu edo indargabetzea erabakitzen den artean.

ERANSKINA

TARIFAK

ARTE ESZENIKOAK (ANTZERKIA-DANTZA)

Emanaldi zehatzak, 0 - 30 euro

Antzerki eta dantza jardunaldiak, 0 - 30 euro

Umeentzako antzerkia, 0 - 10 euro

MUSIKA

Gaur egungo Musika Denboraldia, 0 - 30 euro

Beste kontzertu batzuk, 0 - 30 euro



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Abesbatzen kontzertuak, 0 - 30 euro

Musika klasikoko kontzertuak, 0 - 30 euro

Gazte Txartelarekin tasa txikiagoa ezarri ahal izango da.

ZINEA

Perseo Zine Foruma, 0 - 3,50 euro

Zinea, jatorrizko bertsoan, 0 - 3,50 euro

Umeentzako zinea, 0 - 3,50 euro

Beste batzuk, 0 - 3,50 euro

ESKULANGINTZA AZOKA

Sarrera, 0 - 3,50 euro

Erakustokiaren alokairua, m2-ko, 0- 100 euro

NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZAKO AZOKA

Barazki postua, 0 - 13,00 euro

Fruta postua, 0 - 13,00 euro

Lore eta belar naturalen postua, 0 - 13,00 euro

Eztia saltzeko postua, 0 - 13,00 euro

Ogi eta jakien postua, 0 - 19,00 euro

Gazten postua, 0 - 25,00 euro

Txerriki eta ahate-jakien postua, 0 - 25,00 euro

Txakoli postua, 0 - 25,00 euro

Txosna, 0 - 180,00 euro

ARTE ETA ESKULAGINTZA TAILERRAK

Arte aplikatuen tailerra, 130,00 euro urtean

Umeentzako eskulan tailerra, 130,00 euro urtean

Zura tailatzeko tailerra, 130,00 euro urtean

Zaharberritze tailerra, 130,00 euro urtean

Literatur tailerra, 75,00 euro urtean

Ehungintza tailerra, 130,00 euro urtean



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Ebaketa eta jantzigintza tailerra, 130,00 euro urtean

Zeramika eta eskultura-tekniken hastapen tailerra, 130,00 euro urtean

Helduentzako marrazketa eta pintura tailerrak, 130,00 euro urtean

Umeentzako marrazketa eta pintura tailerrak, 130,00 euro urtean

Beste tailerren tasa Leioako Udalak erabakiko du.

LIBURU ETA POSTALEN ARGITALPENAK.

Leioako Udaleko Kultur Sailak ateratako argitalpenen kostua 0,6 zentimo eta 1,92 euro bitartekoa denean, bere prezioa argitaratze kostuaren %75,00 izango da.

Argitalpenaren kostua 1,92 euro eta 3,82 euro bitartekoa denean, prezioa argitaratze kostuaren %75,00 izango da.

Argitalpenaren kostua 3,82 euro eta 5,11 euro bitartekoa denean, prezioa argitaratze kostuaren %75,00 izango da.

Argitalpenaren kostua 5,11 euro eta 6,37 euro bitartekoa denean, prezioa argitaratze kostuaren %80,00 izango da.

Argitalpenaren kostua 6,37 euro eta 9,56 euro bitartekoa denean, prezioa argitaratze kostuaren %80,00 izango da.

Argitalpenen banaketa sektoreko denden bidez egiten denean, %25eko beherapena izango dute.

1.- LEIOAKO UDALEKO KULTUR SAILEKO LOKALAK ALOKATZEA

KULTUR LEIOAKO AUDITORIUMA

Erakunde publiko nahiz pribatuek antolatzen dituzten saio zinematografiko edo bideo-emanaldietarako, hitzaldietarako, dantza nahiz musika emanaldietarako eta antzezlanetarako.

- Egun osorako alokatzea: 1.563 euro
- Egun erdirako alokatzea: 1.094 euro
- Egun erdirako alokatzea, entseatzeko: 670,75 euro
- Egun erdirako alokatzea, emanaldirako eta koktelerako: 3.603 euro

Larunbatetan eta jai-egunetan: %25eko errenergua

Gaueko ekitaldiak (23:00etatik aurrera): %20ko errenergua

Aparteko orduak edo frakzioak: Errenergua, erabileraren arabera

Muntatu eta desmuntatzeko eguna: Alokaturiko aretoaren prezioaren gaineko %30eko beherapena (egun bat)

Auditoriuma urtean behin baino gehiagotan erabiliz gero, kuota bereziak ezar litezke, okupazio horren arabera.

Aretoa alokatzeak honakoak barne hartzen ditu:

- Argi guztiak
- Aire girotua



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

- Oinarrizko megafonia
- Ohiko garbiketa-lanak

Ez ditu barne hartzen langileak ezta ikus-entzunezko baliabideak ere.

Bestelako zerbitzuak (aretozainak eta jarlekuzainak, txartel-leihatilako langileak, muntaiak eta zamalanak egiteko langileak; teknikariak; proiektzio, soinu eta argi ekipamenduak, eta abar.): banakako aurrekontua.

BILTEGIA: 6 euro metro karratua, egunean

* Leioako Udaleko Kultur Sailak ekitaldi baten antolaketan parte hartzen duenean, karga ekonomikoa elkarbanatzerakoan aintzat hartuko dira alderdiek ondore horretarako erabakitako baldintzak eta alde aurretik Alkatetzak horri buruzko erabakia hartuko du beren beregi, Kultur Batzordearen irizpena – egiteko astirik baldin badago- aztertu eta gero.

Abonuak

1. Benetan instalazioak erabiliko dituzten eskaera-egileei dagokie Leioako Udaleko Kultur Saileko lokalen alokairua ordaintzea.

2. Alokairua honela ordainduko da: aurrekontuaren %10, fidantza eta egunen erreserba gisa, kontratua sinatzerakoan.

Gainerakoa ekitaldia hasi baino 48 ordu lehenago.

Kultur Sailaren lokalak egun jakin batzuetan erabiltzeko erreserba ez da eraginkorra izango, horrekin batera eskatutako alokairuaren frogagiria ordaindu ezean.

3. Lokalen eta zerbitzuen kontratua derrigor gauzatu beharko da.

4. Aretoko zuzendaritzaren irizpideen arabera eta ekitaldi jakin batzuek duten garrantzia dela eta, zerbitzua segurtasun-jagoleekin indartuko da. Segurtasun-neurri hori jarduerak iraun bitartean mantenduko da eta horren gastuak antolatzailearen kontura izango dira.

5. Antolatzaileak beharrezko likidazioa gauzatu beharko du SGAE egile eta argitaratzaileen elkartearekin.

6. Sarrerak alde aurretik saltzekotan, Kultur Leioa salmenta-guneetako bat izango da derrigor. Salmenta-zerbitzua doakoa da eta zentroak duen ordutegian eskainiko da.

7. Antolatzaileak aretoan egin nahi duen ekitaldiaren argazkia, txosten laburra eta diskoa – halakorik dagoenean- utziko dizkio udalari eta Kultur Leioari, material hori beren argitalpenetan erabili ahal izan dezaten.

8. Erreserbak bertan behera utzi nahi izanez gero, horretarako arrazoiak idatziz eman beharko dira, onarpena lortze aldera, eta betiere, jarduera egingo litzatekeen eguna baino 8 egun lehenago gutxienez.

* Leioako Udalak ekitaldi baten antolaketan parte hartzen duenean, karga ekonomikoa elkarbanatzerakoan aintzat hartuko da alderdiek ondore horretarako lortutako akordioa eta alde aurretik Alkatetzak horri buruzko erabakia hartuko du beren beregi, Kultur, Kirol eta Gazteriako Batzordearen irizpena – egiteko astirik baldin badago- aztertu eta gero.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

BESTE ARETO BATZUK

Kultur Sailaren beste areto batzuen alokairua beheko tarifaren bidez eraenduko da:

KULTUR LEIOAKO ENTSEGU ARETOAK

2 ordu	Leioan egoitza duten erakundeentzat 60,00 euro	Beste udalerri batzuetakoentzat 120,00 euro
--------	---	--

KULTUR LEIOAKO PRENTSAURREKO ETA HITZALDI ARETOA

2 ordu	Leioan egoitza duten erakundeentzat 219,00 €	Beste udalerri batzuetakoentzat 438,00 €
--------	---	---

PINUETAKO HITZALDI ARETOA

Leioan egoitza duten erakundeentzat		Beste udalerri batzuetakoentzat	
Egun osoa	Egun erdia	Egun osoa	Egun erdia
119,45 euro	61,35 euro	170,65 euro	102,40 euro

- Erreserbak ekitaldi-eguna baino 15 egun lehenago gutxienez egingo dira.
- Fidantza: erreserba burutzen den unean; aretoaren alokairuaren zenbatekoaren moduko fidantza jarriko da.
- Leioan egoitza duen erakunde batek lokal hauek maiz erabiliz gero, tarifa bereziak ezar litezke; horretarako Kultur Batzordeak horri buruzko irizpena egin beharko du eta Alkatetzak, bere aldetik, onetsi.

2. FOTOKOPIA ETA LIBURUTEGI ZERBITZUA

Fotokopia zerbitzuak tarifa hauek izango ditu:

A4 orria, alde batetik, 0,10 euro

A4 orria, bi aldeetatik, 0,20 euro

A-3 orria, alde batetik, 0,15 euro

A3 orria, bi aldeetatik, 0,30 euro

Mikrofitxa/mikrofilmen kopiak, 0,10 euro



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

Liburutegiko txartela: 0 – 3 euro (2 euro, galduz gero)

Liburutegien arteko mailegua: liburua postaz bidaltzeak daukan kostua izango da prezioa.

3. INTERNET ZERBITZUA

Interneten ordu erdiz ibiltzea, 0 - 1,20 euro

Interneten ordubetez ibiltzea, 0 - 1,80 euro

Orrri bat koloretan inprimatzea, 0 - 0,25 euro

Orrri bat zuri-beltzean inprimatzea, 0 - 0,15 euro

Diskete baten kopia, 0,60 euro

4. LEIOAKO IRUDIEN ARTXIBO ZERBITZUA

Herriko bildumako argazki baten kopia, paperean, 1,50 euro

Herriko bildumako argazki baten kopia, CD Rom-en, 1,80 euro

CD Rom-era gehitzen den herriko bildumako argazki bakoitzeko, 0,60 euro

Alderdi Popularra talde politikoaren proposamenak

1. Irekitzeko lizentziaren tasa: Udalerrian ezartzen diren denda eta ekonomi jardura berriak (azalera komertzial handietan ezartzen direnak izan ezik) irekitzeko lizentziaren tasatik salbuetsita egotea.

PSOE talde politikoaren proposamenak

1. Estolderia tasa: Estolderia tasaren %50eko murrizketa ezartzea udalerrian erroldatuta dauden eta zerga-zorra sortu den momentuan oinarritzko errentaren titular edo onuradun diren pertsonentzat.

2. Zabor-bilketa zerbitzuko tasa: Zabor-bilketa tasaren %50eko murrizketa ezartzea udalerrian erroldatuta dauden eta zerga-zorra sortu den momentuan oinarritzko errentaren titular edo onuradun diren pertsonentzat.

Ogasun Informazio Batzorde eta Kontuen Batzorde Bereziak hurrengoak bidezkoak liratekeela erabaki du:

1. Tasak orokorrean atalari %2,6ko gehikuntza aplikatzea, 40 euro kobratzea Udaltzaingoak aseguru-etxeentzako zirkulazio-istripuei buruz egiten dituen txosten bakoitzeko (agiriak egiteagatiko tasa), zabor-bilketa zerbitzuko tasaren tarifei %3,5eko gehikuntza aplikatzea, eta estolderia tasaren eta zabor-bilketa tasaren %50eko murrizketa ezartzea udalerrian erroldatuta dauden eta oinarritzko errentaren onuradun



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

diren pertsonentzat. EAJ-PNVk, EAK eta PSOEek proposamen honen aldeko botoa eman dute.

2. Alderdi Popularra talde politikoak aldeko irizpena eman dio 40 euro kobratzeari Udaltzaingoak aseguru-etxeentzako zirkulazio-istripuei buruz egiten dituen txosten bakoitzeko (agiriak egiteagatiko tasa). Gainerako proposamenei dagokienez, jakinaren gainean geratu dira baina bozketan abstenitu dira.
3. IU-EB taldeak aldeko irizpena eman die tasak orokorrean atalean %2,6ko gehikuntza aplikatzeari, 40 euro kobratzeari Udaltzaingoak aseguru-etxeentzako zirkulazio-istripuei buruz egiten dituen txosten bakoitzeko (agiriak egiteagatiko tasa), estolderia tasaren eta zabor-bilketa tasaren %50eko murrizketa ezartzeari udalerrian erroldatuta dauden eta oinarrizko errentaren onuradun diren pertsonentzat. Era berean, PPren irekitzeko lizentziaren tasari buruzko proposamenean abstenitu dira, eta zabor-bilketa tasen %3,5eko gehikuntzaren kontra eman dute irizpena.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipiniko da.

2004ko urriaren 20an Ogasun Informazio Batzorde eta Kontuen Batzorde Bereziak egindako bileran 4. puntuari buruzko (Leioako Udaleko Kultur Zerbitzugintzako tasak) irizpena eman zuen eta 2004ko urriaren 27an, berriro ere, horri loturiko irizpena, 216 zenbakiduna, eman du Ogasun Informazio Batzorde eta Kontuen Batzorde Bereziak.

Gai horren inguruan, IU-EBko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak honakoa adierazi du: tarifa batzuk garestiak iruditu zaizkio, bai eta emankizun batzuk eta lokalen alokairua ere, gainera ez dago ados koloretan inprimatzea zuri-beltzean inprimatzea baino garestiagoa izatearekin. Ondorioz, tasa hauek onestearen kontrako botoa emango duela adierazi du.

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak honakoa adierazi du: bere ustez tarifei dagokienez, gutxieneko eta gehieneko zenbatekoaren artean aukera zabalegia dago eta tarifetan errenta txikiak dituztenentzako hobarien falta sentitu duela esan du, nahiz eta ez dakien hobarien ordez gonbidapenik egongo den, horregatik bere taldea abstenitu egingo da ordainarazpen horren bozketan.

Batzordeburua den EAJ-PNVko Iñaki Goikoetxea Gordo jaunak honakoa adierazi du: tarifa horiek ezartzeko beste udaletan jarduera hauek nola kobratzen diren sakon aztertu da aurretik; horrenbestez, bere ustez tarifak zuzenak dira eta zerbitzu horiengatik beste udalerrietan kobratzen denaren arabera, gainera.

Ogasun Informazio Batzorde eta Kontuen Batzorde Bereziak hurrengoak bidezkoak liratekeela erabaki du, Batzordean dauden EAJ-PNVko kideen eta EAKo kidearen aldeko botoaz, PSE-EE-PSOE talde politikoaren abstentzioaz eta IU-EB talde politikoaren kontrako botoaz:

1. Leioako Udaleko Kultur Zerbitzugintzako tasa ezartzea.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

2. Kultur zerbitzuak arautzen dituen zerga ordenantza onestea.
3. Ordenantza onesteari buruzko puntua sartzea udalbatzaren hurrengo bilerako gaitzerrendan.
4. Tasa ezarri eta antolatzeari buruzko erabakia jendaurrean erakustea, Toki Ogasunak arautzen dituen ekainaren 30eko 5/1989 Foru Aginduaren 16. artikuluekin bat etorrira.

Alkate-udalburuak, **EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak**, honakoa adierazi du:

Lehenengo eta behin zuzenketak aurkeztu zaizkien zergei buruzko eztabaida eta bozketa egingo da; horrela bada, talde politikoek zerga bakoitzean aurkeztu dituzten zuzenketen bozketa egingo da lehenengo eta bukatzeko Ogasun Batzordearen zerga eta tasei buruzko irizpenaren bozketa egingo da.

1.- ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiurrutia jaunak, honakoa adierazi du:

Askorik ez hitz egiten saiatuko da, emaitza ez dela aldatuko uste baitu. Zergaren inguruan adierazi du Ogasun Batzordean bere taldeak familia ugariarentzako hobariarekin ados daudela esan zuela; ez, ordea, beste proposamen batzuekin. Era berean, azaldu du bere taldeak udalean mozio bat aurkeztu zuela hutsik dauden etxebizitzetako %50eko errenergua jartzeko ondasun higiezinaren gaineko zergaren kuotan eta mozio hori Barne Araubideko Batzordean aztertu ondoren, udalbatzara beharrezko beste batzorde batera eramatea erabaki zela; horren inguruan adierazi du proposamen horri eusten diotela; horrenbestez, ahal bada, proposamen hori bozkatzeko eskatu du; izan ere, proposamen honen emaitzak bere talde politikoaren azken bozketak eragingo ditu.

Alkate-udalburuak, **EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak**, honakoa adierazi du:

IU-Berdeak taldeko bozeramaileak aipatu duen mozioari dagokionez, hau da, ondasun higiezinaren gaineko zergaren kuotan %50eko errenergua aplikatu ahal izateko beharrezkoa den higiezin hutsaren kontzeptua erregelamenduz gauzatzeko Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzeari dagokionez, aukera hori Informazio Batzordean aztertuko dela adierazi du eta behin horri buruzko irizpena emanda, udalaren osoko bilkurak azaroan egingo duen bilerara eramango da, IU-Berdeak talde politikoak proposamen hori bozkatzeko jarrerari eutsi ahal badio ere.

IU-BERDEAK TALDEAK AURKEZTUTAKO ZUZENKETEN BOZKETA

Aldeko boto bi, IU-Berdeak taldeko zinegotzienak; **kontrako hamalau boto**, EAJ-PNVko bederatzi zinegotzienak, PSE-EE-PSOeko lau zinegotzienak eta EAKo zinegotziarena; eta **lau abstentzio**, PPko zinegotzienak.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Ondasun higiezinaren gaineko zergaren inguruan proposatu dituzten zuzenketa edo proposamen alternatibo ezberdinek erreferentzia egiten dute, lehenengo eta behin, zergatasaren %2,6ko igoerarekin ados daudela, baina salbuespen batekin: Bizkaiko Foru Aldundiak ez baditu balio katastralak igotzen eta igoz gero, %2,6 baino gutxiago igotzen baditu, ondasun



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

higiezinaren gaineko zergaren tasa gehitzea proposatzen dute, balio katastralaren gehikuntzaren eta KPIrenaren arteko aldearengatik.

Bestalde adierazi du %90era arteko hobaria proposatu dutela familia ugariarentzat edo pertsona ezinduek dituztenentzat. Horri dagokionez eta zuzenketa horri erreferentzia eginez, gobernu-taldeak egin duen proposamenarekin ados egongo lirateke eta zentzu horretan, zuzenketa hau kenduko dute.

Jarraian esan du ohiko etxebizitza erosi eta hurrengo hiru urteetan 35 urte baino gutxiago dituztenei ondasun higiezinaren gaineko zergaren %50eko hobaria aplikatzeko zuzenketari eusten diotela, beharrezkoa dela eta kolektibo horrentzako onuragarri izan litekeen neurria dela uste baitute.

Amaitzeko adierazi du, aldi berean, langileen seme-alabentzako haurtzaindegiak jartzen dituzten enpresak ondasun higiezinaren gaineko zergatik salbuetsita egon daitezela proposatzen dutela, eta horregatik, euren ustez Bizkaiko Foru Aldundiari halako ekimenak gauzatzen dituzten enpresentzako salbuespenak ezartzeko eskatu behar zaio.

PSE-EE-PSOeko Susana González andreak honakoa adierazi du:

Zergak eta Tasak arautzen dituzten Ordenantzen aldarazpenekin lotutako espedientean udalaren Ogasun Sailaren txosten bat jasota dago eta bertan adierazi du PPren proposamen batzuk, ikuspuntu teknikoaren aldetik, ez direla legezkoak, horrenbestez legezkoa ez den zerbait ez dute onetsiko eta gainera, aurreko urteetan azaldu duten bezala ez dira ere proposamen horien espiritu edo printzipio politiko berekoak.

Era berean, adierazi du poza ematen diola PPK familia ugariarentzako hobaria kentzeak; izan ere, aurrekoetan ere esan duten bezala errentaren irizpideak eta ez familiakideen kopuruarenak gailendu behar duela uste dute, familia ugariaren irizpidea bakarrik erabiliz gero pertsona aberatsagoei hobaria eman lekieke eta diru-sarrera txikiagoak dituztenei, aldiz, hobaririk ez.

Langileen seme-alabentzako haurtzaindegiak jartzen dituzten enpresak ondasun higiezinaren gaineko zergatik salbuetsita egoteko proposamenari dagokionez, adierazi du proposamen hori beste zuzenketatik bereizita bozkatzen bada, abstenitu egingo direla bozketan, proposamenaren bidez familia bizitza eta langile bizitza uztartzen lagundu nahi dela ulertzen dutelako baina aldi berean, ez zaie iruditzen modurik egokiena denik, osatugabe dagoela uste dutelako; izan ere, haurtzaindegiak jartzeagatik soilik, haurtzaindegi horiek izango duten prezioa eta eragileak zein diren jakin barik, ez zaie iruditzen proposamena guztiz zehaztuta dagoenik. Esandakoa oinarri hartuta, ados daude gai horiei buruz hitz egin daitekeela eta guztien adostasunera heldu daitekeela familia bizitza eta langile bizitza uztartzeko laguntza nagusitu dadin.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Ohiko etxebizitza erosi eta hurrengo hiru urteetan 35 urte baino gutxiago dituztenei ondasun higiezinaren gaineko zergaren %50eko hobaria aplikatzeko mahaigaineratu duten proposamenari dagokionez, adierazi du Ogasun Batzordean aukera hori arauetan agertzen ez dela esan zitezela, hau da, printzipioz Foru Arauan jasota ez dagoela baina ez, proposamena legezkoa ez denik eta izatekotan, euren ustez arauetan agertzen ez bada ere udalaren eskubidea izan daiteke halako hobariak ezartzea.

Alkate-udalburuak, **EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak** honakoa adierazi du:

PPko bozeramaileak adierazitakoaren inguruan esan du legeak ezarritako hobariak eta salbuespenak baino ezin direla onetsi, eta idazkariari eskatu dio horren gaineko erregulazioa azaltzeko.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Udal idazkariak, M^a Victoria Erkiaga Aranguena andreak, honakoa adierazi du:

Udalak aurretik foru arauetan agertzen diren hobariak baino ezin ditu ezarri eta horretaz gain arau horietan adierazten diren aukerako hobariak arautu ditzake ere bai, baina PPK proposatu duen hobaria ez da kasu batean ez bestean sartzen.

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak honakoa adierazi du:

PPK aurkeztu dituen zuzenketen inguruan, langileen seme-alabentzako haurtzaindegiak jartzen dituzten enpresak zerga honetatik salbuetsita egoteko proposamena eta gainerako zuzenketak bereiz bozkatzeko eskatu du.

Alkate-udalburuak, **EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak** honakoa adierazi du:

PSE-EE-PSOeko bozeramaileak egin duen eskaerarekin ados dago; horrela bada, jarraian dagozkion bozketak egin dira.

PP TALDEAK LANGILEEN SEME-ALABENTZAKO HAURTZAINDEGIAK JARTZEN DITUZTEN ENPRESAK ZERGA HONETATIK SALBUETSITA EGOTEARI BURUZ AURKEZTUTAKO ZUZENKETAREN BOZKETA

Aldeko lau boto, PPko zinegotzianak; **kontrako hamar boto**, EAJ-PNVko bederatzi zinegotzianak eta EAko zinegotziarena; eta **sei abstentzio**, PSE-EE-PSOeko lau zinegotzianak eta IU-Berdeak taldeko bi zinegotzianak.

PP TALDEAK ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGARI BURUZ AURKEZTUTAKO GAINERAKO ZUZENKETEN BOZKETA

Aldeko lau boto, PPko zinegotzianak; **kontrako hamalau boto**, EAJ-PNVko bederatzi zinegotzianak, PSE-EE-PSOeko lau zinegotzianak eta EAko zinegotziarena; eta **bi abstentzio** IU-Berdeak taldeko zinegotzianak.

2.- EKONOMI JARDUEREN GAINEKO ZERGA

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Ondasun higiezinaren gaineko zergaren bezala, Ekonomi Jardueren gaineko Zergan Bizkaiko Foru Aldundiari langileen seme-alabentzako haurtzaindegiak jartzen dituzten enpresak zerga honetatik salbuetsita egoteko eskatzea proposatu dute.

Era berean, esan du Ekonomi Jardueren gaineko Zerga bere horretan mantentzea proposatzen dutela, lehengo urtean zerga honek %22ko igoera izan zuelako, oso igoera handia, beraz, %2,6ko igoera ez aplikatzeko eskatu dute.

Alkate-udalburuak, **EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak** honakoa adierazi du:

PPko bozeramaileak aipatutako gehikuntza ez zela gertatu adierazi du. Jarraian esan du aurreko zergaren bezala, PSE-EE-PSOeko bozeramaileak hala eskatuta zerga honi aurkeztutako zuzenketa bakoitzeko bozketa bana egingo dela.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

PP TALDEAK LANGILEEN SEME-ALABENTZAKO HAURTZAINDEGIAK JARTZEN DITUZTEN ENPRESAK ZERGA HONETATIK SALBUETSITA EGOTEARI BURUZ AURKEZTUTAKO ZUZENKETAREN BOZKETA

Aldeko lau boto, PPko zinegotzianak; **kontrako hamar boto**, EAJ-PNVko bederatzi zinegotzianak eta EAko zinegotziarena; eta **sei abstentzio**, PSE-EE-PSOeko lau zinegotzianak eta IU-Berdeak taldeko bi zinegotzianak

PP TALDEAK ZERGA BERE HORRETAN MANTENTZEARI BURUZ AURKEZTUTAKO ZUZENKETAREN BOZKETA

Aldeko lau boto, PPko zinegotzianak; **kontrako hamasei boto**, EAJ-PNVko bederatzi zinegotzianak, PSE-EE-PSOeko lau zinegotzianak, IU-Berdeak taldeko bi zinegotzianak eta EAko zinegotziarena.

3.- TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Bere talde politikoa, hasiera batean Informazio Batzordean abstenitu egin zen, baina une honetan Ogasun Batzordeak proposatu duen gehikuntzaren alde egingo dute.

4.- HIRI-LURREN BALIOAREN GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA

Alkate-udalburuak, **EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak** honakoa adierazi du:

Zerga honen inguruan, talde politiko batek ere zuzenketarik aurkeztu ez duela ikusita eta espedientean jasota dagoen bezala, talde politiko guztiek Ogasun Batzordearen proposamena babesten dute.

5.- ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Espedientean PPren zuzenketa bat jasota egon arren, udalerrian ezartzen diren denda eta ekonomi jarduera berriak (azalera komertzial handietan ezartzen direnak izan ezik) salbuetsita egoteko, bere talde politikoak proposamen hori ez du zerga honetan egin, baizik eta establezimenduak irekitzeagatik tasei buruzkoan. Horrenbestez, Ogasun Batzordearen proposamenaren aldeko botoa emango dute.

6.- TASAK OROKORREAN

Alkate-udalburuak, **EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak** honakoa adierazi du:

%2,6ko igoera proposatu da, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2003. urteko KPIri dagokiona.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Bere alderdiak tasak orokorrean atalean izango duen jarrera Tasen atalean aurkeztuko dituzten proposamenen baldintzapean dago. Horrenbestez, puntu honetan



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

abstenitu egingo dira.

Alkate-udalburuak, **EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak** honakoa adierazi du:

Ondorioz, talde politiko guztiek Ogasun Batzordearen proposamena onetsi dute, PP talde politikoak izan ezik, bozketan abstenitu baita.

7.- AGIRIAK EGITEAGATIKO TASA

Alkate-udalburuak, **EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak** honakoa adierazi du:

Tasa honen inguruan, talde politikoek zuzenketarik aurkeztu ez dutela ikusita eta espedientean jasota dagoen bezala, talde politiko guztiek Ogasun Batzordearen proposamena babestu dute.

8.- IREKITZEKO LIZENTZIAREN TASA

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Udalerrian ezartzen diren denda eta ekonomi jarduera berriak (azalera komertzial handietan ezartzen direnak izan ezik) tasa honetatik salbuetsita egoteko proposatu dute.

PP TALDEAK AURKEZTUTAKO ZUZENKETAREN BOZKETA

Aldeko lau boto, PPko zinegotzienak; **kontrako hamalau boto**, EAJ-PNVko bederatzi zinegotzienak, PSE-EE-PSOeko lau zinegotzienak eta EAko zinegotziarena; eta **bi abstentzio** IU-Berdeak taldeko zinegotzienak.

9.- ESTOLDERIA TASA

Alkate-udalburuak, **EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak** honakoa adierazi du:

PSE-EE-PSOEk aurkeztu dituen zuzenketak, udalerrian erroldatuta dauden eta zerga-zorra sortu den momentuan oinarritzko errentaren titular edo onuradun diren pertsonentzat estolderia tasaren eta zabor-bilketa tasaren %50eko murrizketa ezartzeari buruzkoak, hain zuzen ere, Ogasun Batzordean onartu izan ziren. Ondorioz, Ogasun Batzordeak aurkeztuko duen proposamenean sartzen dira.

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak honakoa adierazi du:

Lehenengo eta behin, eskerrak eman ditu bere taldeak estolderia eta zabor-bilketa tasetan aurkeztu dituen zuzenketak onetsiko direlako; izan ere, alderdi sozialistak atal hauetan urtez urte egin ohi duen proposamen historikoa da hori eta aurten Batzordeburuak maitasun handiz tratatu du proposamena eta azkenean, guztiek onetsiko dute. Bere taldeak hori proposatu du kontraesana iruditzen zitzaielako udalak gizarte-beharrizan larrietarako laguntzak ematea diru-sarrera txikiak, oinarritzko errentak, esate baterako, dituzten pertsonen tasa horiek ordain ditzaten. Hori dela eta, pertsona horiek tasaren %50eko murrizketa gutxienez edukitzea proposatu dute eta datorren urterako kasuistika gehiago aztertzen joango dira; izan ere, egon badago jendea diru-sarrera berdinak dituen eta oinarritzko errenta kobratzen ez duena.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Ogasun Batzordean mahaigaineratu zuten bezala tasa honen bozketan abstenituko dira.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Alkate-udalburuak, **EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak** honakoa adierazi du:

Ondorioz, talde politiko guztiek Ogasun Batzordearen proposamena onetsi dute, PP talde politikoak izan ezik, bozketan abstenitu baita.

10.- ZABOR-BILKETA ZERBITZUKO TASA

IU-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiurrutia Sainz jaunak honakoa adierazi du:

Arazo historikoa da Garbikerrekin sinatutako hitzarmenaren ondorioz datorrena, Garbikerrek esaten duenari men egiten zaio beti; udalak ezin du ezer esan horretan eta eurak ez dira inoiz ados egon hitzarmen horrekin eta orain ere ezin dira ados egon hitzarmen horrek sorrarazitako ondorioak ikusita; izan ere, aurreko urteekin konparatuta tasak jaitsi diren arren, gainerako tasen igoera baino handiagoa da.

PPko Arturo Aldecoa Ruiz jaunak honakoa adierazi du:

Bozketan abstenituko dira, demagogiarik egin barik eta %3,5eko igoera larregi dela esan barik, hori ez baita gakoa.

Esan du arazoaren muina, garrantzitsuena izan ohi dena, hain zuzen ere, eta Ezker Batuko bozeramaileak dagoeneko aurreratu duena, dela zabor tasen gailan, zaborrak bildu, garraiatu eta zaborren tratamendua egiteko zerbitzugintza Garbikerren mende dagoela erabat edo behar bada, ez Garbiker bakarrik; izan ere, egoera honetan eragile posible gehiago dago, denboraz zabor tasa igotzera behartuko dutenak, eta horrek inori batere graziaz ez diola egingo uste du. Horri dagokionez adierazi du Alkate jaunak badakiela, PP talde politikoak eta beste batzuek uste dutela Garbikerrekin 25 urtetarako sinatutako hitzarmena, hitzarmen kaltegarria dela udalarentzat eta azken batez Garbikerrek Zabalgarbiri ordaindu behar diola zaborrak desagiteagatik, enpresa pribatu bat dena eta azkenean, prezioak ezarriko dituen, alegia. Era berean, zehaztu du Alkate jaunak ere badakiela Bizkaiko zaborren tratamendu plana berrikusteko proiektua abian jarri dela eta adierazi du atsegin handiz eztabaidatuko duela hori gerora Susana González andrearekin Batzar Nagusietan, gai benetan interesgarria izango delako; aipatutako proiektuak gertaera oso garrantzitsua aldatzen du funtsean ikuspuntu politikotik. 1997an Euzko Alderdi Jeltzaleak, Euzko Alkartasunak, Alderdi Sozialistak, Euskadiko Ezkerrak eta Alderdi Popularrak "Hiri Hondakin Solidoen Kudeaketarako Plan Integrala" (PIRSU) aho batez onetsi zutenean, denek buruan zuten zaborren %50 baino gehiago tratatuko zuen erraustegia, zabor-poltsak beti ere, ez, obra-hondakinak. Eta horrek esanahi bat zuen ez zen bigarren erraustegi bat egingo lehenengoa 23 mila miloi pezeta balio izan zuelako bere garaian, gero garestiagoa izan bada ere.

Jarraian adierazi du Garbikerren hitzarmenari buruzko eztabaida eta ika-mika eta guzti, bai udal honetan eta beste 90 bat gehiagotan, funtzionatu egin dela baina orain 2004-2016rako plan berriak, 12 urtetarako planak, hain zuzen ere, beste erraustegi berri bat eraikitzeak aukera aurreikusi duela eta Azpigarapen Foru Aginduek ezarri duela aukera hori aurreikusi duen plana hurrengo hilabeteetan, urtarril edo otsail aldera, Batzar Nagusietan eztabaidatu eta gero, plan horren edozein aldarazpenek, milioika euro balio duten azpiegiturei eragin diezaieketenek, edo beste aldarazpen batzuek Batzar Nagusien eskuetatik ihes egingo dutela eta aldarazpena automatikoki egingo dela Foru Aldundiak eta Zabalgarbik nahi baldin badute.

Esan du horren guztiaren ondorio legez, gakoa ez dela zabor tasako zerbitzuaren kostuak %3,5 igotzea, zerbait sakonagoa baita; izan ere, eskuetatik ihes egiten ari zaie etorkizunean diru-galera handia izango den zerbait eta PP behintzat ez dago horretarako prest. Euren ustez, bat-etortzeak lortu ahal izango dira baina kontrola egon behar da beti; horrenbestez, gaiak behar beste alditan eztabaidatu behar direla eta gero Batzar Nagusietan dagokion bozketa egin beharko dela uste du, ondorioz, politikoki, abstenitu egin behar dute,



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

gakoa ez delako tasa %3,5 igotzea baizik eta gakoa dela zerbait garrantzitsuaren agintea galdu dela eta gainera udal honen eskumena dela hori, hau da, hondakinak bildu, garraiatu eta horien tratamendua egitea, eta hurrengo 25 urteetan, hori horrela izango dela, eta enpresa pribatu baten ardurapean egongo garela, seguruenik negozio ederra egingo duen enpresaren ardurapean, alegia; izatez, dagoeneko negozio ederra egin du baina errepikatu nahi du eta PP talde politikoa ez dago horretarako prest.

Alkate-udalburuak, **EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak** honakoa adierazi du:

Edozelan ere, Arturo Aldecoa jaunak egin duen adierazpen hori Batzar Nagusietan edukiko duen eztabaida itzelaren aurrerapena izan da eta horren inguruan, Aldecoa jaunari eskatu dio abisatzeko haiek ikustera joan daitezten eta bide batez, proposamen alternatiboen berri izan dezaten, nahiz eta gaur egun indarrean dagoen ereduak ongi funtzionatzen duela deritzon. Izan ere, eredu horretan instituzioen arteko lankidetzaren sendoa izan da eta horri esker, eredu behar den moduan egin daiteke; horren inguruan adierazi du berak ez duela ikusten Leioan zaborren tratamendurako sistema berezia aplikatzerik.

PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo jaunak honakoa adierazi du:

Ogasun Batzordeak proposatu duen igoerari euren babes emango diote, aurreko urteetako tasan gehikuntza handia egon bazen ere, aurreko parametro normalagoen arabera gehikuntza normalizatzen hasi dela uste dutelako. Edozelan ere, zabor tasaren inguruko alderdirik garrantzitsuena da PSEE-EE-PSOEk udalerrian erroldatuta dauden eta oinarritzko errentaren titular edo onuradun diren pertsonentzat zabor-bilketa tasaren %50eko murrizketa ezartzeari buruz aurkeztutako zuzenketa Ogasun Batzordeak onartu duela, hain zuzen ere, horren bidez beharrezko handiena duenari hobaria emango baitzaio.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

PSE-EE-PSOE eta IU-Berdeak taldeek aurkeztu dituzten zuzenketekin ados daude, positiboak direla iruditzen zaielako nolana ere.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak honakoa adierazi du:

6. puntua- Ordenantzak

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak honakoa adierazi du (euskaraz):

Horren inguruan adierazi du bera ez dela orain hasiko satsen tratamenduari buruz eztabaidatzen, tratamenduaren gaiak seguruenik besteak Batzar Nagusietan arituko direlako eta mahai gainean utzi gura du bakar-bakarrik talde guztien gogoetarako. Orduan esan du alde aurretik hemen beste gogoeta bat daukatela: satsak batzuek zer kostatzen duen, ez tratatzea, batzuek bakarrik eta zentzu horretan uste du beharrezkoa dela esatea gero eta garestiago ateratzen dela satsak batzuek, eta hori gero eta gehiago birziklatzen dugulako dela. Gaineratu du laster aurrekontuak etorriko direla eta bertan ikusiko dutela planteatzen den sats organikoaren batzako igoera, oso igoera arrunta dela; berak uste du KPIren gehikuntza bakar-bakarrik planteatzen dela. Baina birziklatzearen bidez batzen diren satsetan gero eta diru gehiago gastatzen da eta diru hori tasa baten bidez poltsikoratzea zilegia eta beharrezkoa dela uste du.

Amaitzeko alderdi sozialistari zuzendu zaio eta honi buruzko gogoeta egin dezala proposatu dio: aurreko planteatzen den igoera %3,5ekoa da baina suposatzen du datorren urtetik aurrera igoerak handiagoak izan beharko direla, ez tratamenduagatik baizik eta batzuegatik bakarrik.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

Alkate-udalburuak, **EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak** honakoa adierazi du:

Ondorioz, Ogasun Batzordearen proposamena onetsi da, EAJ-PNV, PSE-EE-PSOE eta EA talde politikoen aldeko botoaz, eta PP eta IU-Berdeak taldeen abstentzioaz.

11.- KULTUR ARETOKO ZERBITZUAK EMATEAGATIKO TASA

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiurrutia jaunak honakoa adierazi du:

Ordenantza berria izanda, hura aztertzeke denbora luzeagoa izatea gustatuko litzaiokeela adierazi du. Horri dagokionez, lokalen erabilera sozialaren inguruan agertu zituzten kezka batzuei egun horretan bertan erantzun zaiela esan du. Izan ere, Udalak lokalak elkarteentz eskura jarri ditu normalean, baina hala ere, bere alderdia ez dago ados zenbait alderekin, hala nola, tokiko taldeek entsegu-lokalak bi orduz erabiltzeko ordaindu behar dituzten tasekin (60 €), talde horietarako tasa gehiegizkoa izan baitaiteke. Halaber, antolatutako ekitaldietan hobaririk ez dagoela adierazi du, musika kontzertuetarako erabil daitekeen gazte txartela izan ezik. Hori dela eta, uste du hobeto aztertu beharko litzatekeela eta bidezko ñabardurak egin beharko liratekeela, alderdi politikoen artean adostasuna egoteko. Horren ondorioz, tasa horren aurka bozkatuko dute.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Bozeramaileen Batzarrean azaldu zaienaren arabera, beharrezko zerga ordenantza omen dela adierazi du, kultur etxea jada martxan dagoela eta aipatutako kultur etxeko zerbitzuak ematea arautzen duen araudia egotea beharrezkoa dela kontuan hartuta. Hala ere, uste dute ezartzen diren tasei buruzko azterlan sakonagoa egin behar dela. Izan ere, ez da prezio berezirik ezartzen Leioako erakundeetarako auditoriuma alokatzeko orduan, baina bai kultur etxeko beste areto batzuk alokatzeko. Beraz, alde hori hobeto liteke. Horri dagokionez, bere alderdia abstenitu egingo dela adierazi du, zuhurrak baitira: alde batetik uste dute beharrezkoa dela araudia aurrera ateratzea, baina beste aldetik, uste dute etorkizunean alderdi politikoko guztiek araudi hori berrikusi beharko dutela.

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak honakoa adierazi du:

Ogasun Batzordean zalantza batzuk agertu zituztela adierazi du. Zalantza horiek egun horretan alkate jaunak argitu ditu neurri batean, Bozeramaileen Batzarrean, esate baterako, Udalak normalean elkarteentz esku doan jarri dituen lokalen erabilerari buruzkoa. Izan ere, bazirudien ordenantza horren bidez sinbolikotzat jo daitekeen kopurua baino garestiagoa ordaindu beharko zutelako. Horri dagokionez, alkate jaunak azaldu die alde hori ez dela inola ere aldatu, eta horren ondorioz, ez dute ordaindu beharko.

Halaber, Bozeramaileen Batzar horretan ordenantza bat onartu behar dela agertu dute, kultur aretoa jada martxan baitago eta tasak abenduaren aurretik onartu behar baitira. Baina EB-Berdeak taldeko bozeramaileak adierazi duenez, beraien ere uste dute hori guztia oso arin gauzatzen ari dela. Beraz, azterlan sakonagoa behar du, konpromiso egokiago batera heldu ahal izateko. Hori dela eta, hurrengo urtean kultur areto berriko funtzionamendu-araudi bat egitea proposatu dute, bertan hobari jakin batzuk ematea agertuko dela, Iñaki Gomendiurrutia EB-Berdeak taldeko bozeramaile jaunak gazte txartelaren edota egokitzeak jotzen diren beste txartel batzuen inguruan esan duen bezala. Horren ondorioz, besteak proposamen horiekin ados badaude, bere alderdiak baieztatu botoa emango du; ados ez badaude, aldiz, abstenitu egingo da.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate-udalburuak honakoa adierazi du:

Bozeramaileen Batzarrean adierazi duen bezala, lehenik eta behin zerga ordenantza bat dela adierazi du. Ordenantza hori egotea beharrezkoa da kultur aretoko zerbitzuak ematea arautu ahal izateko. Bigarrenez, zerga ordenantza honetan ezarri diren prezioak inguruko udalerrri guztietako prezioen batezbestekoa baino merkeagoak dira. Hirugarrenez, adibidez Pinuetako Elkarteak gelak erabiltzeari dagokionez inolako aldaketarik egon ez dela adierazi du. Izan ere, Bozeramaileen Batzarrean jakinarazi denez, mota horretako eskaera bat dagoenean behar besteko denbora badago bidezko Batzordeak horren berri eman eta alkate jaunak ebazten du, orain arte egin den moduan. Era berean, Bozeramaileen Batzarrean kultur etxeak funtzionatzeko ordenantza hau onartu behar dela adierazi duela azaldu du. Dena den, nola ateratzen den ikusita, ekitaldi honetan bidezko aldaketak egin ahal izango dira. Halaber, Kultur Leioarako funtzionamendu-araudiaren antzeko zerbait lantzen ari dela adierazi du. Bere ustez, hori beharrezkoa da, eta horregatik uste du egindako proposamena erraz onar daitekeela. Amaitzeko, alderdi politikoak ados egonez gero, Ogasun Batzordearen proposamen osoaren (aipatutako tasa barne) bozketa orokorra egingo dela adierazi du.

LANGILEEN SEME-ALABENTZAT HAURTZAINDEGIAK EZARTZEN DITUZTEN ENPRESEI UDAL TASETARAKO HOBARIA EMATEARI BURUZ PP ALDERDIAK AURKEZTU DUEN ZUZENKETA

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Epigrafean agertu den zuzenketa proposatzen duela adierazi du. Zuzenketa hori Informazio Batzordean ere aurkeztu du, Udalak langileen seme-alabentzat haurtzaindegiak ezartzen dituzten enpresei udal tasetarako hobaria eman diezaien.

PP ALDERDIAK AURKEZTU DUEN ZUZENKETAREN BOZKETA

Aldeko lau boto izan dira guztira, PPko zinegotzienak. Era berean, **kontrako hamar boto** izan dira, EAJ-PNVko bederatzi zinegotzienak eta EAko zinegotziarena. **Sei abstentzio** egon dira, PSE-EE-PSOeko lau zinegotzirenak eta EB-Berdeak taldeko bi zinegotzienak.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate-udalburuak honakoa adierazi du:

Jarraian, alderdi politikoak ados daudenez, Ogasun Batzordeak udal zergak eta tasak aldatzeari buruz egin duen proposamena bozkatuko dela adierazi du.

OGASUN BATZORDEAREN PROPOSAMENAREN BOZKETA

Aldeko hamalau boto izan dira guztira, EAJ-PNVko bederatzi zinegotzienak, PSE-EE-PSOeko lau zinegotzirenak eta EAko zinegotziarena. Era berean, **kontrako bi boto** izan dira, EB-Berdeak taldeko bi zinegotzienak. **Lau abstentzio** egon dira, PPko zinegotzienak.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren Osoko Bilkurak gehiengoz erabaki du Ogasun Batzordeak Zergak eta Tasak aldatzeari buruz egindako proposamenak onestea, baita Leioako Udaleko Kultur Arloko zerbitzuak emateagatik tasaren ezarpena eta aipatutako zerbitzuak emateagatik tasa



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

arautzen duen Zerga Ordenantza onestea ere.

**7.- “IKASTETXEAN EUSKARAZ JOLASEAN - JUGANDO EN EUSKERA EN LA ESCUELA”
IZENKO PROIEKTUAREN INGURUAN, ALDE BATETIK, HEZKUNTZA, HIZKUNTZA
POLITIKA, PRESTAKUNTZA ETA ENPLEGUKO INFORMAZIO BATZORDEAK 2004-09-
28AN HARTUTAKO 128. IRIZPENA ETA 2004-10-19AN HARTUTAKO 137. IRIZPENA ETA
BESTE ALDETIK, TOKIKO GOBERNU BATZARRAK HARTUTAKO EBAZPENAK
BERRESTEA:** Hurrenez hurren, 2004ko irailaren 28an eta urriaren 19an Hezkuntza, Hizkuntza
Politika, Prestakuntza eta Enpleguko Informazio Batzordeak egindako bileretan onetsi ziren
128. eta 137. irizpideen berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari; osoko bilkurak irizpen horien
inguruko erabakia har dezan. Aipatutako irizpenak Gobernu Batzordean hartutako Alkatzaren
ebazpenak izan ziren. Hona hemen irizpenek diotena:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika, Prestakuntza eta Enpleguko Informazio Batzordeak
emandako 128. irizpena, 2004ko irailaren 28koa, gai honi buruzkoa da:

Epigrafean aipatutako gaia dela eta, Euskara Zerbitzuak dokumentu bat aurkeztu
du. Honakoa dio, hitzez hitz:

“IKASTETXETAN EUSKARAZ JOLASEAN
IKASTETXE PUBLIKOETAKO ZUZENDARIEN PROPOSAMENAREN INGURUAN

AZALPENA

*Ikastetxeetako zuzendariak euren ikasleek jolastokian euskararik ia erabiltzen ez dutela-eta
kezkaturik, ikastetxean bazkaltzen geratzen diren ikasleekin bazkalostean zerbait egin beharra
azpimarratu zioten Euskara Zerbitzuari.*

*Euskara Zerbitzua ere bat etorri zen zuzendariekin, izan ere hizkuntza era integralean garatu
behar dela irizten baitio, hau da, hizkuntza modu osasuntsuan garatuko bada pertsonengan
bizitzako ahalik eta arlo gehienak hartu behar ditu, ez irakaskuntza formalari dagokiona soilik,
gainontzeko funtzio guztiak gazteleraren eremu izan daitezen utziz.*

Horregatik, eta kontuan izanik ikasle askok ikastetxetik kanpo ez daukatela ez familian ez aisialdian
euskaraz bizitzeko aukera handirik oso onuragarria litzateke halako egitasmo bat abian jartzea.

EGITASMOA

*Arestian aipatu bezala, egitasmo honen helburua ikasleak egoera ez formal eta ez
kontrolatuetan, jolasean aritzeko “aukeratzen” duten hizkuntzan eragitea da, gaur egun nagusi
den gazteleratik euskarara lerra daitezen ahaleginduz.*

Iruditzen zaigu, baina hori ahalik eta modurik ez formalenean egin beharko genukeela, euren jolas eta
denbora librea errespetatuz eta ahal den neurrian interferentziarik sortu gabe.

Asmoa zera da, ikasleak patioan jolasean ari diren bitartean begiraleak eurengana hurbiltzea eta eurekin
jolasean aritzea, bide batez jolas horretan erabiltzen diren euskarazko esapideak boteaz, errepikatuaz,
eta ikasleei eurek ere horiek erabil ditzatela proposatuz.

Horretarako bi aukera pentsatu ziren:

- Herriko aisialdi taldeetako begiraleen bitartez antolatzea
- Halako zerbitzua eskaintzen duten aisialdi talde profesionalen bitartez antolatzea

Lehenengo aukera bertan behera utzi behar izan genuen, izan ere eguerdiko ordutegi horretan herriko
taldeetako begiraleak, lana dela, ikasketak direla, ez daude libre.

Beraz aisialdi talde birekin hitz egin (Urtxintxa eta Aixa) eta aurrekontuak eskatu genituen (begiratu
ERANSKINA). Eta biak aztertu ondoren Euskara Zerbitzuak Aixa taldearen eskaintza hobestea
proposatu nahi dio Hezkuntza Batzordeari bi arrazoi nagusirengatik



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

- Diru aldetik eskaintza hobea delako
- Aixa Sortzen-Ikasbatuaz elkartearen barruan sortutako egitasmoa izanik irakaskuntza munduarekin lotuago dagoelako.

Ikastetxeekin egunak eta ordutegiak zehaztu ondoren, esan, San Bartolome ikastetxea egitasmotik kanpo geratu dela ordu horietan eskolaz kanpoko jarduerak (ingeleza) dauzkatelako.

Hori horrela, egitasmoaren egutegia horrela geratuko litzateke:

Astearteetan

13:30 - 14:30	6 begirale	Altzaga ikastola
14:00 - 15:00	4 begirale	Artatza ikastetxea

Asteazkenetan

12:45 - 13:45	5 begirale	Txomin Aresti
13:30 - 14:30	5 begirale	Txomin Aresti

Edozein egunetan

13:30 - 14:30	2 begirale	Lamiako
13:30 - 14:30	2 begirale	Mendibile

Gaur egun Euskara sustatzeko diru partida horrela dago

Euskara programa aurrekontua	37.352,86 €
Berbalapikoa 1. hiruhilekoa	4.330,00 €
Berbalapiko eguna	7.616,95 €
Zinea euskaraz (iaz erabilitakoa)	3.094,00 €

Geratuko litzatekeen dirua 22.311,91 €

IKASTETXEAN EUSKARAZ JOLASEAN

Hilean	2.184,00 €
Urritik abendura	6.552,00 €
Urtariletik ekainera	13.104,00 €

JUGANDO EN EUSKERA EN LA ESCUELA EN TORNO A LA PROPUESTA DE LAS DIRECTORAS DE LOS CENTROS PÚBLICOS

EXPOSICIÓN

Las directoras de los centros públicos, preocupadas por el hecho de que no se usa el euskera en el patio se dirigieron al Servicio de Euskera a fin de impulsar alguna actividad durante las horas de comedor.

El Servicio de Euskera, coincide con las directoras, ya que considera que el idioma se tiene que desarrollar de manera integral, es decir, tiene que desarrollarse en todos los ámbitos de la vida de las personas, no únicamente en la concerniente a la educación reglada, dejando en que los demás ámbitos los cubra el castellano.

Por ello, teniendo en cuenta que muchos de los alumnos no tienen fuera del centro escolar ninguna posibilidad de usar el euskera, sería muy conveniente poner en marcha un proyecto de esta índole.

EL PROYECTO

Como bien hemos señalado anteriormente, el objetivo de este proyecto es incidir en el idioma que “eligen” los alumnos para jugar en situaciones no formales y no controladas, para que poco a poco vayan inclinándose hacia el euskera.

Pero nos parece que lo deberíamos hacer de la forma más natural posible, de una manera informal, respetando sus juegos y su tiempo libre, creando las menos interferencias posibles.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

La intención no es otra que los monitores se acerquen a los alumnos mientras estos se encuentran jugando y se unan a sus juegos, proponiéndoles expresiones en euskara relacionados con el juego, animándoles a que los usen.

Para ello se vieron dos posibilidades:

- Organizarlo mediante los monitores de las asociaciones del municipio
- Organizarlo mediante los grupos profesionales que ofrecen dicho servicio.

Tuvimos que desechar la primera opción, ya que los monitores de las asociaciones locales no disponían de tiempo libre en esa franja horaria.

Por lo tanto contactamos con dos grupos de tiempo libre (Urtxintxa y Aixa) y les pedimos presupuesto para (ver ANEXO). Una vez estudiadas las dos el Servicio de Euskera quiere recomendarle a la comisión de Educación que se decante por la opción de Aixa por dos razones:

- Económicamente es mejor
- Siendo Aixa un proyecto creado dentro de Sortzen-Ikasbatuaz está más relacionado con el mundo de la educación

Una vez concretados con los centros los días y los horarios, San Bartolomé se ha quedado fuera del proyecto, ya que en esa franja horaria tienen actividades extraescolares (inglés).

Siendo así, el calendario para dicho proyecto queda concretado de la siguiente manera:

Martes

13:30 - 14:30	6 monitores	Altzaga
14:00 - 15:00	4 monitores	Artatza

Miércoles

12:45 - 13:45	5 monitores	Txomin Aresti
13:30 - 14:30	5 monitores	Txomin Aresti

Cualquier día

13:30 - 14:30	2 monitores	Lamiako
13:30 - 14:30	2 monitores	Mendibile

Hoy en día la partida destinada a impulsar el euskera está de la siguiente manera

Presupuesto total	37.352,86 €
Berbalapikoa 1er trimestre	4.330,00 €
Berbalapiko Eguna	7.616,95 €
Zinea euskaraz (el año pasado)	3.094,00 €

Total disponible	22.311,91 €
------------------	--------------------

JUGANDO EN EUSKERA EN LA ESCUELA

Al mes	2.184,00 €
Octubre-diciembre	6.552,00 €
Enero-junio	13.104,00 €

Gai honi dagokionez, eztabaida luzea egin da. Jarraian udal talde politiko ezberdinetako kideen iritziak laburbildu dira:

- PPko Udal Taldea: proiektua artifizialtzat hartu du, horren eraginkortasuna zalantzan jartzen duela. Gainera, ikasleen eremu pribatu batean –horiek jolasten ematen duten denbora- eragina duela adierazi du, eta erakundeek ez lukete esku hartu beharko denbora hori erabiltzeko moduan, askatasun-espazioa da eta. Proposamena guztiz desegokitzat jo du, uste baitu euskararen sustapenean azkarregi joan nahi dela elebakartasuna eskuratzeko asmoz. B hizkuntza-eredua garatzen duten ikastetxeen esku-hartzea oso larritzat jo du, asmoa ikasleek astialdian gaztelania ez erabiltzea da



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

eta, hizkuntza-eredu hori daukaten ikastetxeen irakaskuntzan gaztelania hizkuntza ofiziala bada ere.

- EAJ-PNVko Udal Taldea: hizkuntza baten murgilketa-programa guztietan, Europako edozein herrialdetan, eta gure eremuan, ikastetxe ingelesean, ikastetxe frantsesean, ikastetxe alemaniarrean eta abarretan mota horretako proposamenak prestakuntzarako oinarrizkoak direla adierazi du, helburua ikasten ari den hizkuntza erabilia komunikazio normala izatea dela. Kasu honetan, proposamenak euskara hezkuntza-eremuan ez ezik, eremu guztietan ere erabiltzea nahi du, etorkizunean ulermenaren tresna komuna izan dadin. Udal talde honetako kideen iritziz, kezkarria da PPK umeen funtsezko eskubide bat –askatasuna- eragiten ari dela azpimarratzea, benetako asmoa herri-ikastetxeetako zuzendari guztiek hizkuntza baten murgilketa-programa bati laguntzeko egindako aho bateko eskaerari erantzutea zela. Parte-hartzaileen ustez, horrek azken batean hizkuntza-askatasunari lagundu nahi dio, euskara edo gaztelania erabiltzea aukeratu ahal izateko. Alde horretatik, funtsezko eskubide bat erabiliz esku hartu duen Batzordeko kideak euskaraz hitz egin ahal izan duela eta itzultzaile batek parte hartzeko eskatu ahal izan duela adierazi da, euskaraz ez dakitenek berak esandakoa uler dezaten. Hala ere, komunikazioaren arintasunaren onerako eta bizkortasun handiagoaz komunikatzeko gaztelania erabili nahiago izan duenez, ez du euskaraz hitz egin. Horrez gain, PPKo kideek funsgabeki eman duten baieztapena dela eta, haserre dagoela adierazi du; izan ere, PPKo kideek adierazi dute asmoa elebakartasunera heltzea dela.
- PSE-EE-PSOeko Udal Taldea: EAJ-PNVko kideek agertutako jarrera ikuspegi teknikitik ondo ulertzen bada ere, aldi berean PPKo kideek esandakoa ere ulergarria dela adierazi da. Izan ere, beren iritziz, gurasoek seme-alabak eredu euskaldun batean matrikulatzen badituzte, euskara irakaskuntzan proiektatzea nahi dutelako izango da, besterik gabe. Hezkuntza-erakundeek hizkuntza-plangintza aldatu dutela eta Leioako herri-ikastetxeetan A eredu ez dagoela aipatu da. Halaber, aipatutako eredu eskatzen ez bada, beren iritziz beste bi ereduak –B eta D- eragiten direlako da. Harrigarritzat jo dute zuzendariak mota horretako proposamenez arduratzea. Talde honen ustez, proposamenaren benetako asmoa euskararen ikasgeletatik kanpoko erabilera “*zaintzen duen*” pertsona bat kontratatzea zen.
- EAKo Udal Taldea: EAJ-PNVko kideek adierazitakoaren alde dagoela adierazi du, nabarmena baita euskararen erabilerak oztopo bat daukala, eta oztopo horren efektuak arintzeko, hain zuzen ere, zuzendariak eztabaidatu den proposamena egin dute. Logikoa denez, programa aurrera eramango luketen begiraleek behar besteko burua izango lukete kontu handiz jarduteko. Amaitzeko, Konstituzio Auzitegiko epaiak azpimarratu ditu, euskararen balorazioa edo erabilera urratzen zuten Administrazioak zigortzen zituztenak, euskara hizkuntza ofiziala da eta.
- EB-BERDEAK Udal Taldea: proposamena ideia ona iruditu zaio, euskararen erabilera eguneroko bihurtu nahi duen proiektu ona delako. Bestalde, bere ustez, proposamenak eskoletako jolastokietan heldu gehiago egotearen balio erantsia zeukan, modu horretan Hondarribiako ikastetxe batean orain dela gutxi gertatutako ikasleen jarrerak bezalakoak saihestu ahal izateko. Zoritxarrez, gertaera horretan hamalau urteko gazte batek bere buruaz beste egin zuen. Azkenik, bortxaz hitz egitea aurreiritzi funsgabea iruditzen zaiola adierazi du.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika, Prestakuntza eta Enpleguko Informazio Batzordeak, EAJ-PNVko lau zinegotzien, PSE-EE-PSOeko bi zinegotzien, EB-BERDEAK taldeko zinegotziaren eta EAKo zinegotziaren aldeko botoekin, aurkeztutako proiektuaren aldeko irizpena eman du, baita horren burutzapena AIXAri 19.656 €-ko zenbatekoan (2004ko urritik abendura: 6.552 €; 2005eko urtarriletik ekainera: 13.104 €) ematearen aldekoa ere. PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak eta Aiala Eguiluz Rodríguez andreak aurkako boto partikularra eman dute, aurretik adierazitako arrazoiak direla eta.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK **berrets egin du** goian adierazitako irizpena eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK gai hori onesteko **dekretua eman du**.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika, Prestakuntza eta Enpleguko Informazio Batzordeak emandako 137. irizpena, 2004ko urriaren 19koa, gai honi buruzkoa da:

Tokiko Gobernu Batzarrak urriaren 5ean egindako bileran onartu zen Alkatetza-Udalburutzaren 685/04 zenbakiko ebazpenaren bidez, "Ikastetxean Euskaraz Jolasean-Jugando en Euskera en la Escuela" proiektua burutzea onartu da, 19.656 €-ko aurrekontua izanda.

Aipatutako proiektuari dagokionez, Euskara Zerbitzuak ondoko txostena egin du:

"SAN BARTOLOME IKASTETXEAN EUSKARAZ JOLASEAN

AZALPENA

2004ko irailaren 28ko Hezkuntza Batzordearen 128.irizpena jarraituz 2004ko urriaren 5eko Udal Gobernu Batzaren 685. erabakian agertzen denez San Bartolome eskola egitasmo horretatik kanpo geratu zen jantokiko ordutegian eskolaz kanpoko ekintzak zituztelako.

Hala baina, egitasmoari benetan interesgarri irizita San Bartolome eskolak, ordutegiak berraztertu eta aukera ikusi du, ostiraletan, egitasmo hau euren eskolan ere gauzatzeko.

Hori dela-eta zera ESKATZEN DUT

San Bartolome eskolan ere egitasmoa aurrera eraman dadila, horrek honako gastua suposatuko duelarik:

San Bartolome IKASTETXEAN EUSKARAZ JOLASEAN

Hilean	546,00 €
Urritik abendura	1.638,00 €
Urtarriletik ekainera	3.276,00 €

JUGANDO EN EUSKERA EN LA ESCUELA SAN BARTOLOME

EXPOSICIÓN

Siguiendo el dictamen núm. 128 adoptado en la Comisión de Educación con fecha 28 de septiembre de 2004, la Comisión Municipal de Gobierno adopto la resolución núm. 685 con fecha 5 de octubre de 2004 en la cual se menciona que el colegio San Bartolomé queda fuera de dicho proyecto debido a las actividades extraescolares que tenían en dicho horario.

Pero debido a que dicho proyecto se ha considerado sumamente interesante, la escuela San Bartolomé una vez re-estudiados los horarios ha propuesto desarrollar dicho proyecto en su centro los viernes al mediodía.

Por lo cual **SOLICITO**



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Que la escuela San Bartolomé tome parte en dicho proyecto, suponiendo ello el siguiente costo económico:

JUGANDO EN EUSKERA EN LA ESCUELA San Bartolomé

Al mes	546,00 €
Octubre-diciembre	1.638,00 €
Enero-junio	3.276,00 €

Hezkuntza, Hizkuntza Politika, Prestakuntza eta Enpleguko Informazio Batzordeak, EAJ-PNV, PSE-EE-PSOE eta EAKo zinegotzien aldeko botoekin, aipatutako programa lehen agertu bezala San Bartolome Herri-ikastetxera hedatzearen aldeko irizpena eman du. PPko zinegotziak aurkako boto partikularra eman du. Alderdi politikoetako kideek jakintzat jo dituzte irailaren 28ko bileran onartu zen "Ikastetxean Euskaraz jolasean-Jugando en euskera en la Escuela" programari buruzko hasierako irizpenean agertzen diren argudioak.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK **berretsi egin du** goian adierazitako irizpena eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK gai hori onesteko **dekretua eman du**. Tokiko Gobernu Batzarraren bilera honetan erabaki da udalaren osoko bilkurak "Ikastetxean euskaraz jolasean-Jugando en euskera en la escuela" izeneko proiektuari buruzko Hezkuntza, Hizkuntza Politika, Prestakuntza eta Enpleguko Informazio Batzordearen irailaren 28ko eta urriaren 19ko irizpenak eta Tokiko Gobernu Batzarraren 2004ko urriaren 5eko eta urriaren 26ko Ebazpenak berrestea.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

"Ikastetxean euskaraz jolasean - Jugando en euskera en la Escuela" proiektua aurkeztu zenean bere alderdi politikoak Hezkuntza Batzordean izandako jarrera ezberdinak berresteko hitz egingo duela adierazi du.

Leioako herri-ikastetxeetako zuzendariak Udalari egokitzat jotzen dituzten aldeak agertzeko eskubidea daukatela ulertzen dute. Kasu honetan, ikasleek jolas-orduan eta jantokian gehien bat gaztelania erabiltzen dutelako kezkatuta daude, baina hala ere, Udalak gaiari emandako erantzuna ez da egokia izan.

Izan ere, Gobernu Taldeak "Ikastetxean euskaraz jolasean - Jugando en euskera en la Escuela" izeneko programa proposatu du, "*ikasleek egoera ez formal eta ez kontrolatuetan aukeratzen duten hizkuntzan eragiteko*" asmoz, "*gaur egun nagusi den gazteleratik euskarara lerra daitezen ahaleginduz*". Bere ustez, mota horretako esku-hartzeak, hau da, hizkuntzari eragitekoak, agertzeak umeak bere denbora ez kontrolatuan egokitzat jotzen duen hizkuntzaz adierazteko duen eskubidea zapaltzea dakar funtsean. Euskararen erabilera bultzatzeko modu hertsatzaile baten aurrean daudela uste du, mota horretako esku-hartzeek hain modu artifiziosan irakatsi nahi zaien hizkuntzarako gaitzespena sor baitezakete ikasleengan. Hori dela eta, modu horretan eskolatik kanpo gaztelania besterik ez erabiltzeko nahi handiagoa sor daiteke.

Ikastetxe pribatu batzuetan –ikastetxe frantsesa edo ikastetxe ingelesa- hizkuntza sustatzeko mota horretako neurriak erabiltzea programa hori abiarazteko oinarri gisa hartzean, Eusko Alderdi Jeltzaleko kideek nolabait egin duten moduan, herri-ikastetxeen aurrean gaudela ahaztu egiten da. Gainera, herri-ikastetxeen lehentasunetako bat gure Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera errespetatzea izan beharko litzateke. Horren ondorioz, lekuz kanpo dago ikasleen astialdian edo hezkuntza-komunitateko beste edozein elementutan euskararen zein gaztelaniaren erabilera mugatzea dakarten neurriak ezartzea.

Amaitzeko adierazi du ezarri nahi den programa berez kritikagarria bada ere, are kritikagarriagoa dela, B ereduko ikastetxeetan ere ezarri nahi dela kontuan hartuta. Herri-



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

ikastetxeetako zuzendariak azaldutako egoera, hau da, hizkuntzaz dakitenek euskara ez erabiltzea, ez da bakarrik eskola-eremuan gertatzen; euskal gizartearen beste eremu batzuetan ere gertatzen da oro har, euskararen adituek eurek orain dela gutxi aitortu dutenez. Beraz, nolana ere aurrean daukagun egoera horrek gogoeta orokorra beharko luke, bistan denez, Leioako eskola-eremutik eta gure udalerritik kanpo dagoela. Laburbilduz, ikasleek jolas-orduan eta jantokian hitz egiteko hizkuntza askatasunez aukeratzeko duten eskubidea babesteko asmo nagusia izanda, Gobernu Taldeari modu formalean eskatu diote "Ikastetxean euskaraz jolasean - Jugando en euskera en la Escuela" programa ken dezala.

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak honakoa adierazi du:

Batzordean aurkeztu zaien dokumentuaren bi paragrafoak irakurriko dituela adierazi du, Xabier Olabarrieta jaunak bat bakarria irakurri baitu. Honakoa dio lehenengo paragrafoak: *"Arestian aipatu bezala, egitasmo honen helburua ikasleak egoera ez formal eta ez kontrolatuetan, jolasean aritzeko "aukeratzen" duten hizkuntzan eragitea da, gaur egun nagusi den gaztelertatik euskarara lerra daitezen ahaleginduz"*. Bigarrenak, berriz, honakoa dio: *"Iruditzen zaigu, baina, hori ahalik eta modurik ez formalean egin beharko genukeela, euren jolas eta denbora librean errespetatuz eta ahal den neurrian interferentziarik sortu gabe. Asmoa zera da, ikasleak patioan jolasean ari diren bitartean begiraleak eurengana hurbiltzea eta eurekin jolasean aritzea, bide batez jolas horretan erabiltzen diren euskarazko esapideak boteaz, errepikatuaz, eta ikasleei eurek ere horiek erabil ditzatela proposatuz"*.

Jarraian aurreko paragrafoan hitzez hitz idatzitako dokumentuari baieztoko botoa emango diotela adierazi du. Hala ere, ez diote baieztoko botorik emango ume bati gaztelaniaz hitz egitea debekatzeari; are gehiago, umeren bati gaztelaniaz hitz egitea debekatuko balitzaio, beraiek proiektuaren kontra agertuko lirateke erabat.

Halaber, bere ustez hori osoko bilkurari ez dagokion gai bat dela adierazi du; alkate jaunak osoko bilkuran agertzea erabaki du, azaldu beharrik ez duten begien bistako arrazoiak direla eta. Izan ere, garrantzi berezia izan du, eta beraiek uste dute zerbait objektiboa dela: une zehatz batean Euskal Autonomia Erkidegoak erabaki zuen euskal hizkuntzak gaztelania eta euskara zirela, biak batera egon behar zirela, eta biak hizkuntza ofizialak zirela. Gainera, eman zaizkien dokumentuetan eta Batzordean adierazitako azalpenetan ez da inoiz aipatu gaztelaniaz hitz egitea debekatuko denik. Baina programa abiarazten denean debeku hori ezarriko balitz, bere alderdia erabat kontra egongo litzatekeela esan du.

Amaitzeko esan du bere ustez normalizazioaren aldeetako bat hurrengo dela: hizkuntza nagusia daukan gune bakoitzean, gutxiengoaren alde egitea. Hori dela eta, Leioan gaztelaniadunak izanda, gaztelaniaz hitz egiteko joera dago, eta horren ondorioz, euskararen alde egiten saiatzen da. Horri dagokionez, kontrako kasua gertatzen den udalerrietan, hau da, gehien bat euskaldunak diren udalerrietan, gaztelaniarekin mota horretako programak egitea gustatuko litzatekeela adierazi du.

EB-BERDEAK taldeko Ruben Belandia Fradejas jaunak honakoa adierazi du:

Lehenik eta behin adierazi du ekimen horrek Leioako Udalaren dirua hobeto erabiltzea dakarrela: lehen udalak euskararen aldeko ekintza zehatzak diruz laguntzen zituen, ikastetxeetan egiten zirenak, eta orain, ordea, egunerokotasunean oinarrituta dagoen ekimen bat martxan jarriko da, horrek diru publikoaren erabilerraren eraginkortasuna nabarmen areagotuko duela.

Bigarrenez, erabilerrari dagokionez euskara eta gaztelania egoera berdinean ez daudela azpimarratu nahi izan du. Berezik garrantzitsua iruditzen zaie euskara ikasgaiak ikasteko hizkuntza bakarrik ez izatea, eta horregatik, euskara aisia eta astialdian erabiltzeko aukera eman behar da, horren erabilera une dibertigarrietan eta alaietan, eta eguneroko bizitzaren edozein egoeratan sustatuta.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Izan ere, gaztelaniaren eragina askoz nabarmenagoa da, eta hori esateko ez diogu zertan erreparatu hizkuntza bakoitzean dauden komunikabideen kopuruari. Beraz, argi dago, zorionez, gure erkidegoan gaztelania ez dagoela inolako arriskupean. Horrekin batera, gogoeta bat gauzatu beharko da, eta egoera horri aurre egiteko egon daitezkeen ondorioen artean, ekimen horien aldeko laguntza bat gauzatu behar dela ikusiko da, gaztelaniaren inguruan sortutako ohitura pixka bat apurtzeko. Ikasleekin euskaraz hitz egin dezakeen pertsona bat egoteak ez du inoren askatasuna apurtzen edo murrizten. Egiten duen gauza bakarra laguntzea da, eta askotan nahikoa da alboan euskaraz hitz egiten duen pertsona bat egotea euskaraz hitz egiten dakiten beste batzuek euskaraz hitz egiteko, beren askatasunak inoiz murrizten ez direla eta hizkuntza hori erabiltzeko aukerak zabaltzen direla.

Horrez gain, ekimen horrek ikastetxeetako segurtasuna areagotzeko daukan eraginkortasuna ere garrantzitsua dela azpimarratu nahi duela adierazi du. Une horretan gai hori komunikabideetan pil-pilean dago, ikasleen artean gertatzen diren erasoak direla eta, eta komunikabideek eurek esan dute Udalak gai horretan eta beste batzuetan konprometitu beharko lirartekeela. Dena den, ikastetxeetako jolastokietan helduak egon behar dira, eta alde horretatik, Leioako Udalak abiaraziko duen ekimen hori erabat eredugarria da. Hori dela eta, alkate jaunari eskatu diote proposamen hori beste udal batzuetara zabaltzeko, beste udalek antzeko neurriak har ditzaten. Horrela, aurretik aipatutako helburu anitz lortuko dira: alde batetik euskararen aldekoak, eta beste alde batetik, gure ikasleen segurtasunaren aldekoak eta bizi-kalitatea hobetzekoak.

EAKo Ernesto Angel Trigueros Santa Coloma jaunak honakoa adierazi du:

Gobernu Taldearen barneko erabakiak hartzen dituen EAKo bozeramailea den aldetik, proposamen horrekin bat datorrela adierazi du, eta halaber, oposizioan dauden gainerako alderdiek esandako gauza guztiekin ere bat datorrela. PPK agertutako gaiari dagokionez, logikoa iruditzen ez zaiola eta hondoko arrazoia zein den ez dakiela adierazi du. Izan ere, PPK agertutako jarrerak ez du kontuan hartzen arazo nagusia: euskara egoera ahulean dago bai Leioan bai Euskadi osoan, eta ez da arriskuan jartzen gazteek gaztelaniaz hitz egitea, jakina. Beraz, egoera mota guztietan euskara eta horren erabilera laguntzeko egiten ez den guztia garapen horren kontra joatea da, eta hori ikasleak hizkuntzaren ohiko erabilera batera ez heltzeagatik baztertzeko saiatzeari bezalakoak izango litzateke. Berak azalduetako Auzitegi Gorenak bermatu du, Katalunian gertatu den kasu batean: alde horretatik, zenbait pertsonak beren seme-alabei horrelako gauzarik ez eskatzeko eskatzen zuten.

EAJ-PNVko Jesús Bilbao Curiel jaunak honakoa adierazi du:

Oro har, eta nahiz eta zinegotzi bakoitzak edo pertsona bakoitzak gauzak beren modura azaltzen dituen, bera ezin dela bat etorri beste batzuek esan dituzten puntu guzti-guztiekin adierazi du. Hala ere, bai Ezker Batuak esan duenarekin, bai EAK esan duenarekin, bat dator. PSE-EE-PSOeko bozeramaileak esan duenari dagokionez, neurri batean ados dagoela adierazi du, batez ere euskara eta gaztelaniaren egoerari buruz esandakoarekin, horrelako elebitasun egoera batean kontuan hartu behar baita zein den hizkuntza gutxituaren egoera, edo zein den nolabaiteko arriskupean egon daitezkeen hizkuntza. Halaber, bozeramaile horrek giza eskubideen gainean egindako adierazpenak harritu duela esan du, landutako gaiaren harira ez datorrela uste baitu. Izan ere, kasu horretan ez da antzeko zerbait gertatzen. Hala ere, giza eskubideak zapaltzekotan harekin guztiz ados egongo litzatekeela adierazi du, baina hori ez da kasu horretan gertatzen, eta horren ondorioz, neurri batean testuingurutik kanpo dagoela uste du.

Programa nolakoa den azalduko duela adierazi du, proiektu hori Leioako zenbait herri-ikastetxetako zuzendarien ekimen batetik sortu dela azaldu. Aurreko programek jarduera zehatzak besterik ez zekarten eta zuzendariak uste zuten "Ikastetxean euskaraz



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

jolasean - Jugando en euskera en la Escuela” programaren bidez agertutako ekimena bezalakoa sortu behar zela. Halaber, aurreko programari dagokionez, proiektuak “Berbalapiko” izeneko jarduera ordeztuko ez duela adierazi du, jarduera hori azken 3 hiletan aldatuko dela.

Ondoren, programaren helburua umeek euskaraz jolasten ikastea dela azaldu du. Horretarako, beraiekin jolastu behar da, ikasgeletan nekez sortzen baitira antzeko komunikazio-egoerak, egoera horiek guztiak kontrolatzen dituen esparru akademikoa dago eta. Horregatik, jolas-orduak erabili behar dira euskaraz jolasten ikasi ahal izateko. Jarduera hori gauzatzeko, umeen esku begirale batzuk jarri nahi dira eguerdiko jolas-orduan, lan-prozedura honakoa izango dela: umeak jolastokira irtengo dira eta jolasten hasiko dira; orduan begiraleek jolas horiek euskaraz burutzeraz gonbidatuko dituzte, eta guztiz borondatezkoa izango da umeak horiekin jolastea. Beraz, ados ez daudela adierazten badute, ez dute parte hartuko.

Horri dagokionez, modu horretan egitea bidezko zat jotzen duela adierazi du, murgilketa-programetan gertatzen dena kontu horretantxe ere gerta baitaiteke: hizkuntza zehatz bat, esate baterako ingelesa, ikasten denean, nahiz eta hizkuntza ikasi eta titulazio bat lortu, ziur aski gero ez gara ume jaioberri bati ingelesez ezer esateko gai izango, inoiz ez baitugu horrelako egoerarik izan hizkuntza horretaz. Beraz, uste du euskaraz jolasten ikasteko umeekin euskaraz jolastu behar dela, eta programa ikuspegi horretatik ulertu behar dela.

Jarraian adierazi du PPko zinegotziak esan duela jolastokian ikasleek askatasunez jokatu beharko zutela. Hezkuntzan eta irakaskuntzan hori ez da betetzen, normalean hitzarmen akademikoen arabera irakasleek umeak zaindu behar dituztelako jolas-orduan, bertan denbora-tarte bat erabiltzen da eta hezkuntza- eta didaktika-helburuekin. Izan ere, uste da irakasleak ikasleen gainean daudela etengabe eta horiek zaintzen dituztela. Hala ere, kasu horretan egoera ezberdina da, denbora-tarte horretan umeekin jolastuko delako, bai pilotan, bai futbolekin, bai sokan... Horri dagokionez, oraindik mota horretarako programetara ohituta ez daudela adierazi du, baina Europako toki askotan oso normalak dira, jolastokietan eta jolas-orduetan hizkuntza-eragin bat sustatzen saiatzeko, esan den moduan. Halaber, ez da inoiz saiatuko ikasleek askatasunez aukeratzeko dituzten eskubideak hausten.

Lehenik eta behin aipatu du hasieran ekimen horren bultzatzailea ez zela udala, ikastetxeak eurak baizik. Bigarrenaz adierazi du egunero parte hartzea borondatezkoa dela. Horregatik, uste du arazo hori giza eskubideen esparruan sartu denean, egia esan, aipatutako eskubideak ez zedela arriskupean. Halaber, adierazi du prentsan egindako adierazpenak ez zaizkiola batere egokiak iruditu. Izan ere, badirudi PP euskararen aurka dagoela, eta agian pentsatuko dute onuraren bat aterako diotela, nahiz eta berak hori zalantzan jarri. Berari pena handia ematen dio jarrera horrek, hizkuntza gutxitua den aldetik euskarak zenbait pertsonak noizean behin, batez ere prentsa eta komunikabideak tartean daudenean, ahazten dituzten beharizan batzuk dituelako. Alde horretatik, asmo gogorrago eta finkoago bihurtzen dira euskararen alde, polemika horrek guztiak euskarari kalte handia egin dion zalantzan jartzen badu ere.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate-udalburuak honakoa adierazi du:

Alkatea den aldetik, gai horretan esku hartuko duela adierazi du, oso eztabaida garrantzitsua eta sakona delako. Izan ere, alkateari eta Gobernu Taldeari leporatu diete umeen eskubideak erasotzea eta aipatutako eskubideak urratzea. Jarraian adierazi du PPko bozeramailearen argumentu-ahultasun txundigarriak harritu duela, harrigarria baita planteamenduak Leioan dagoen Ikastetxe Ingeleserako edo Ikastetxe Alemaniarrerako edo Ikastetxe Frantseserako ere balio duenik ez esatea. Izan ere, ikastetxe horietan ingelesez, frantsesez eta alemanez hitz egiten dute jolastokian, beren irakasleen babespean. Beraz, horietan ere umeen eskubideak urratzen diren galdetu du, eta horiek ikastetxe pribatuak direla argudiatzeak ez duela balio gaineratu du. Umeen funtsezko eskubideen gaia ez dela zalantzan



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

jarri behar esan du, eta horri dagokionez, ez da bereizi behar ikastetxea publikoa edo pribatua den, horrek argumentu-ahultasun txundigarria agertzen du eta.

Bigarrenaz, La Voz de Galicia eta La Razón egunkarietako kazetariak deitzen hasi zirenean istorio honen berri izan zuela adierazi du, hiru komunikabidetan argitaratu baino egun bat lehenago, hain zuzen ere. Kazetari horiek bere idazkariarekin hitz egin zuten, eta zera adierazi zioten, *alkatearekin hitz egin nahi zutela, alkateak umeei gaztelaniaz hitz egitea debekatzen zien programa bat abiarazi zuela jakin zutelako, eta bere azalpena entzun nahi zutela*. Gero informazioa argitaratu zenean, gaia norantz bideratu nahi zuten susmatu zuen, hau bezalako fenomeno politiko jakin batzuk ulertzeko bi kontu nagusi daude eta: testuingurua eta formak ikusi behar dira. Horri dagokionez, jendeak tratamendu mota hori ez duela ulertzen eta lan politikoko eskema horrekin aspertuta dagoela esan du.

Halaber, kontu horretako ibilbidetik aparte, azken asteetan Martin de Ugalde, gizon oso bat, modu iraingarrian tratatu dutela esan du, euskara eta terrorismoa uztartuta. Berak ez dio izengoitirik jarriko: berdin da euskalduna, espainiarra, frantsesa, italiarra edo argentinarra zen. Ondoren, euskal sukaldari batzuk ere modu iraingarrian tratatu dituztela esan du, bere iritziz hori guztia nahiko tamalgarria den testuinguru baten barnean dagoela. Fornei dagokionez, La Razón egunkarian "Lejona" udalerraren izentzat hartzen dutela errepikatu du, eta hori ez da nahaste bat, jakin baitakite izen ofiziala Leioa dela. Era berean, aurreko egun batean, COPEn solaskideetako batek "Leioa" esan zuen, eta beste batek esan zion ez zela "Leioa", "Lejona" baizik. Hori ez da ez kasualitate bat, ez nahaste bat, argitaratze-ildo bat baizik: izan ere, Iñaki Anasagastiri Ignacio Anasagasti esaten diote, baina nazioarteko orrialdeetan George Bush esaten dute, eta ez Jorge Bush; edota Tony Blair, eta ez Antonio Blair. Kasu horietan ez dago arazorik. Hori dela eta, uste du apropos egiten dutela, frankismo soziologikoko komunikabide horiei ez zaielako axola gaztelaniaz ez hitz egitea, euskaraz hitz egitea baizik. Horixe da arazoa. Horregatik guztiagatik, kezkarriak iruditzen zaizkio mota horretako fenomenoak, eta PPko bozeramaileari esan dio ez dagoela esaterik Leioan umeei gaztelaniaz hitz egitea debekatzen zaienik, eta horren ondorioz, errespetu pixka bat eskatu du.

Jarraian, "hizkuntza-murgilketa"ko programei buruz hitz egin dela adierazi du. Programa horiek Espainian ez ezik, herrialde askotan ere agertzen dira. Ziur aski, Cervantes Institutuak horrelako programaren bat izango du gaztelaniaz, Europako estatuetan hizkuntza-murgilketako programak burutzen ditu eta, eta antza, ez dute eskubiderik urratzen, hizkuntza- eta kultura-aberastasunaren zati delako. Eta PSE-EE-PSEko bozeramaileak esan duenez, kontua hizkuntza- eta kultura-aberastasuna da; garrantzitsuena elkar errespetatzea eta bakeaz, askatasunaz eta giza eskubideez hitz egitea da, eta berdin da espainieraz edo gaztelaniaz, euskaraz, frantsesez edo, posiblea izatekotan, laugarren hizkuntza batez egiten dugun. Horrela, behintzat, gure seme-alabek lau hizkuntza jakingo lukete.

Jarraian, modu horretan hitz egitea tamalgarria iruditzen zaiola adierazi du, ezaguna baita jarduera hori Herri-ikastetxeetako zuzendariak eskatuta gauzatu dela. Gainera, zuzendariak zintzotasun, profesionaltasun eta naturaltasun osoz egin dute, aniztasunaren sinpatiarene eta emoziozko, nortasunezko eta politikako jarreraren isla direla.

Era berean, aurreko egun batean Onda Cero entzun zuela adierazi du, eta uste du Antonio Burgosek hauxe esan zuela: *"une hauetan faltan ditut aspaldiko garaiak: norbera eskolara hizkuntza bakar batez zihoan, eta zezenketara joanez gizon bihurtzen zen"*. Horri "frankismo soziologikoa" esaten zaiola azaldu du. Halaber, uste du inperialismo kulturala dagoela, hizkuntza batek bestea garaitu behar baitu, eta hori bizikidetzat eta giza eskubideen aurkakoa da. Berak ez du onartuko Udalak, Gobernu Taldeak, umeei gaztelaniaz hitz egitea debekatzen dien programa bat abiarazi duela esatea.

Amaitzeko, udalerraren izenari dagokionez, izena pertsonen zein herrien duintasunaren zati dela adierazi du, eta norberak aukeratzen du nola deitzen den, edo behintzat, besteek berari gustatzen zaion moduan deitzea. Beraz, herriak Leioa izena izateko eskubidea dauka,



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

eta hortik badago izena apropos aldatzen dion lan-ildo bat, Lejona deitzen diona, frankismo soziologikoa oraindik bizirik dago eta, hori oso tamalgarria dela.

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak honakoa adierazi du:

EAJ-PNVko Jesus Bilbao jaunari adierazi dio berak ez duela eztabaida agertu giza eskubideen aldetik: kontua gaztelania debekatuko dela izatekotan (nahiz eta egitasmoa irakurritakoan, horrelakorik ez dela gertatuko ulertu), hori gertatzekotan, egoera ezberdina izatekotan, hain zuzen ere, kasu horretan bakarrik proiektuaren aurka bozkatuko lukete.

Jarraian, alkate-udalburuari adierazi dio haren azalpenean eman duen diskurtsoarekin bat etorri ezin dela, PPK terrorismoa eta euskara uztartzeko asmo garbia baitauka. Alkate jauna oker dago, eta inperialismoa dagoela esan du, eta bera ez dator bat horrekin. Era berean, ez zaio bidezkoa iruditu sukaldariez eta abarrez hitz egitea.

Amaitzeko, Hezkuntza Batzordeak aurkeztutako egitasmoarekin bat datorrela adierazi du, hori laster bozkatuko dela, eta ez datorrela bat alkate-udalburuak egindako diskurtsoarekin.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du

Lehenik eta behin adierazi du Hezkuntza Batzordean izan duten eta osoko bilkuraren bilera honetan defendatu duten jarrera berretsi nahi duela.

Bigarrenez, hurrengo kasua agertu du: jada ikastetxe batzuetan martxan hasi den eredu hirueleduna (euskara, gaztelania eta ingelesa) dela eta, etorkizunean umeak batzuetan jolastokian ingelesez jolastuko balira, mota horretako programak sortuko lirateke, ala arazoa umeek gaztelaniaz hitz egitean baino ez dago? Beraiek uste dute horixe dela arazoa, eta horregatik mota horretako neurriak agertzen dituzte.

Horri dagokionez, umeen hizkuntza-eskubideak urratzen ari direla uste dutela adierazi du, Jesús Bilbao Curiel eta alkate jaunek esandakoren aurka daudela. Bere alderdiaren ustez, asmoa jolas-ordu eta jolastokietan hizkuntza zehatz baten erabilera mugatzea da, nahiz eta Bilbao jauna kontua apaintzen saiatu den, borondatezkoa zela esanez. PSE-EE-PSOeko bozeramaileak irakurri duen testuari berriro helduta, *“asmoa zera da, ikasleak patioan jolasean ari diren bitartean begiraleak eurengana hurbiltzea eta eurekin jolasean aritzea”* irakurrita, beraiek uste dute horrek ikasleen jolas-orduaren naturaltasun eta garapen normala haustea dakarrela. Hori dela eta, berriro aipatu dute programak ikasleek egokitzen jotzen duten hizkuntzaz hitz egiteko duten eskubideari eragiten diola, eta horren ondorioz, beren alderdia ekimen horren aurka dagoela.

Jarraian adierazi du argi dagoenez, zuzendariek une zehatz batean euskara jolas-orduetan ez erabiltzeagatik izan dezaketen jarrera edo kezka uler dezaketela, baina uste dute programa hori ez dela euskararen bultzada lortzeko bide egokia. Izan ere, horrela epe ertainera edo luzera euskararako efektu negatiboa lortuko da, hizkuntza-askatasuneko eskubidea mugatzeagatik ez ezik, euskararako berez kaltegarria izateagatik ere.

Halaber, kontu horien bidez etekin politikoa eskuratu nahi dutela leporatu zaiela adierazi du, baina uneoro gidatzen dituen gauza bakarra beren ustez bidezkoa denaren defentsa da, kasu honetan pertsona guztiek askatasunez erabakitzeko duten eskubidearen defentsa, hain zuzen ere. Batzordean programa aurkeztu zitzaizanean, umeen eskubideari eragiten ziola ikusi zuten, eta horregatik, hasiera-hasieratik beren alderdia programa horren aurka egon dela adierazi dute. Izan ere, uste dute ez dela bide egokia asmo hori lortzeko, guztiz okerra den bidea baizik, eta horri eusten diote: beren ustez okerra da programa hori mantentzea, eta etorkizunean ezartzea.

Alkate jaunak euskal sukaldarien, Martín Ugaldereen, edo komunikabide ezberdinek albistea jasotzeko izan duten moduaren gainean (oihartzuna izan du: komunikabideek uste dute larria dela, eta horren ondorioz, oihartzuna izatea logikoa da) egindako oharrei dagokienez, komunikabide ezberdinek albistea jasotzeko izan duten modua ez dutela



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

baloratuko adierazi du, uste baitute hori ez dela beren eginkizuna. Nolanahi ere, PSE-EE-PSOeko bozeramailearen iritzi bera dauka, hau da, ez dira beste egoera batzuk, euskal sukaldariena edo Martín Ugalderena kasu, aipatu behar "Ikastetxean euskaraz jolasean - Jugando en euskera en la escuela" programaz hitz egiten ari dela.

Amaitzeko, Alderdi Sozialistak programaren bidez umeei gaztelaniaz hitz egitea debekatzen ez zaiela esateko egin duen argudiaketari dagokionez, oso modu burutsuan, hala deitu nahi izanez gero, debekatzen zaiela adierazi du. Baina azkenean ez da hain burutsua, begiraleak umeen artean sartu beharko baitira horien jolas-orduan edo jan ondoren duten denboran. Era berean, gaztelaniaren erabilera mugatuko zaiela ulertzen dute, eta alde horretatik, jolasa hizkuntza jakin batez garatzen dutenean, hizkuntza horretaz hitz egitea debekatuko zaie, edo hizkuntza horretaz ez hitz egitera bultzatuko dira.

EAJ-PNVko Jesús Bilbao Curiel jaunak honakoa adierazi du:

Lehenik eta behin, PPko bozeramaileari adierazi dio euskararen kontu guztia sortutako eztabaida politikotik atera nahi duela. Izan ere, Euskara Zerbitzuak euskara zaintzen ez badu, nork zainduko du euskararen tratamendua? Horri dagokionez, hori bere asmoa zela esan du, baina agertutako ekimenari buruzko jarduera euskararen aldekoa baino ez dela adierazi diote. PPri dagokionez, uste du euskararen inguruan egin duten ikuspegia guztiz desegokia dela. Jarraian adierazi du prentsan adierazitako kritikak ez direla bidezkoak izan, batez ere forma (zenbait pertsonaren hitzez hitzeko esaldiak komatxo artean agertu dira) eta proiektu horrek umeen eskubideak urratzearen inguruan eman diren adierazpenak kontuan hartzen baditugu.

Halaber, proiektu hirueledunak daudela adierazi du, euskara, gaztelania eta ingelesa uztartzen dituztenak eta frantsesa hautazko ikasgai daukatenak; proiektu horiek ikastolen sarean eta gobernuan agertzen dira. Horri dagokionez, PPko bozeramaileak galdetu du ea ingelesez ikasteko laguntzaren bat eskatuz gero, emango litzatekeen ala ez. Eta egia esan, Euskara Zerbitzutik ez lukete horrelako laguntzarik emango, zerbitzu horrek euskarari lotutako gaiak baino ez baitu lantzen.

Jarraian adierazi du Bixente Barreiro Hezkuntzako zinegotzi arduradunak Informazio Batzordean hori onetsi ostean eskoletako Ordezkaritza Organo Gorenekin, hau da, Eskola Kontseiluekin, hitz egin duela. Kontseilu horietan bai ikasleek, bai irakasleek, bai zuzendariak, parte hartzen dute, eta Leioako 5 eskola-kontseiluak ados daude ekimen horrekin, programa oso egokitzat jo dutela. Halaber, mota horretako programak Euskal Autonomia Erkidegoko beste udal batzuetan ere gauzatzen ari direla adierazi du, eta horietan ez dela inolako arazorik sortu gaiaren inguruan. Horrez gain, estatuko eta munduko erkidego elebidunetan ere antzeko programak burutzen dira, hizkuntza gutxitua dagoenean. Udalerrri honetan burutu nahi den programa dela eta, euskaraz hitz egin nahi dutenek baino ez dute euskaraz hitz egingo, lehen azpimarratu denez, programa borondatezkoa izango baita.

Gero azaldu du murgilketa-programei dagokienez, orain dela gutxi pertsona batek umeei ama-hizkuntzan ikasi behar dutela esan ziola, bestela arazoak sor baitaitezke burmuinean, eta hori dela eta, frankismo garaian Euskal Autonomia Erkidegoko pertsona askoren ama-hizkuntza euskara izanda, inork ez zuela pentsatu aipatutako umeei gaztelania hutsean bakarrik ikasteak sor zitzakeen ondorioetan. Egin duen bigarren zehaztasuna pertsona batek hitzaldi batean Bibliako Babeleko dorrearen istorioari buruz egindako aipamen bat da: antza denez, Jaungoikoak gizakiak euren harrokeriagatik zigortu zituen, zeruraino iritsiko zen dorre garai bat eraiki nahi zutelako, eta eleaniztasuna, hau da, hizkuntza-aniztasuna, ezarri zien. Horixe izan zen zigorra. Orain galdera hurrengoa da: zigorra ala oparia izan zen? Bere ustez, oparia izan zen, aberastasuna bertan dagoelako, hizkuntza batez baino gehiagoz hitz egiteko gai izatean, hain zuzen ere. Beraz, guztiek uste badute Babelen gertatutakoa zigorra beharrean oparia izan zela, guztiek euskararen zerbitzuaren alde lan egin ahal izango dute.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Bere azalpenean adierazi duenez, bere alderdi politikoak "Ikastetxean euskaraz jolasean - Jugando en euskera en la Escuela" programa kentzeko eskatu du.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate-udalburuak honakoa adierazi du:

Horri dagokionez, programa osoko bilkuraren bilera horretan berretsi nahi dela adierazi du. Jarraian, PPko bozeramaileari adierazi dio Euskadi Confidencial webgunearen egileari adierazteko politikan gauza asko esan badaitezke ere, lelokeriarik ez esateko. Izan ere, batzuetan berari buruz esaten duenaren berri izan du. Gainera, aipatutako gizonak Leioako jai-egitaraua kaltegarria zela esan zuen, Euzko Alderdi Jeltzaleari publikitate egiten ziolako, eta astebete beranduago adierazi zuen Leioako Udalak Alderdi Popularra behartu zuela jai-egitarauan agertzerak. Bere ustez, ezin da horrelakorik egin politikaren munduan. Halaber, osoko bilkuraren bileran ekimen horren inguruan eman den azalpen osoa gorabehera, PPko bozeramaileak oraindik eskoletan gaztelaniaz hitz egitea debekatuko duen programa abiaraziko dela esaten jarraitzen duela adierazi du.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Lehenik eta behin, osoko bilkuraren bileran gaiarekin zerikusirik ez duten eta bidezkoak ez diren kontuak agertzeak ez duela beste kalifikaziorik behar adierazi du. Bigarren, bere alderdi politikoa ez dela inoren mandataria adierazi du, eta alkate jaunak zerbait esan nahi badio pertsonaren bati, zuzenean esateko eskubidea daukala esan du, ez duela zertan bere taldeko inor mandataria gisa bidali. Amaitzeko, Udalak gaztelania debekatzeko plan bat abiarazi nahi duela esan ez duelakoan dago; izan ere, plan horren bidez, ikastetxeetan gaztelania erabiltzea mugatuko da eta mugatu nahi da.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate-udalburuak honakoa adierazi du:

Nolanahi ere, beraiek gizon horri beste kontu batzuen berri ematen diotenez, berak bide bera baino ez zuela erabili nahi adierazi du, eta modu horretan, aipatu duen oharra berari jakinarazi.

Eztabaidatu ostean, bozkatu egin da eta honako erabaki hau hartu da:

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Aldeko hamasei boto izan dira guztira, EAJ-PNVko bederatzi zinegotzienak, PSE-EE-PSOeko lau zinegotzienak, EB-Berdeak taldeko bi zinegotzienak eta EAko zinegotziarena. Era berean, kontrako lau boto izan dira, PPko lau zinegotzienak. Horren ondorioz, udalaren osoko bilkurak **gehiengoz erabaki du** "Ikastetxean euskaraz jolasean- Jugando en euskera en la escuela" izeneko proiektuari buruzko Hezkuntza, Hizkuntza Politika, Prestakuntza eta Enplegu Informazio Batzordearen irailaren 28ko eta urriaren 19ko irizpenak eta Tokiko Gobernu Batzarraren 2004ko urriaren 5eko eta urriaren 26ko Ebazpenak **berrestea**.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

II.- UDALAREN OSOKO BILKURAK UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETARI EGITEN DION KONTROLA ETA JARRAIPENA

8.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK ETA TOKIKO GOBERNU BATZARREAN HARTUTAKO ERABAKIAK : 2004-09-24TIK 2004-10-22RA:

Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 46.2.e) artikuluan, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazkuntzan, eta azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, bilkurako espedientean agertzen dira, gero dagokien lekuan artxibatzeko kalterik gabe, epigrafean aipatutako epealdian Alkateak emandako dekretuen kopiak eta Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileren akten kopiak, azter ditzaten.

Udalaren osoko bilkura jakinaren gainean geratu eta ados egon da.

9.- PRESAZKO MOZIOAK

Atal honetan ez da moziorik aurkeztu.

10.- ESKAERA ETA GALDERAK.

PPko Arturo Aldecoa jaunak honakoa adierazi du:

Irailaren 29an Barne Araubideko Informazio Batzordean aurkeztu zuten mozioari buruz galdetu nahi izan dio alkate jaunari; mozioa Euskadiko Liburutegien gaineko legearen aurreproiektuari buruzkoa zen eta Batzordeak aldeko txostena eman zion arren, ez da Osoko Bilkuraren eguneko aztergai-zerrendan sartu.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate-udalburuak honakoa adierazi du:

Adierazi duenez, aipatutako mozio hori ez da udalbatzaren eguneko aztergai-zerrendan sartu bere ustez ez delako egokia osoko bilkura batean aurreproiektu bati buruzko hausnarketa egitea. Izan ere, aurreko astean Euskadiko Udalak ordezkatzan dituen EUDELen bertan (Alderdi Popularreko jendeak egiten du lan hor) aipatutako aurreproiektu horri buruzko azterlana egiteko aukera izan zuten; aurreproiektuak aurrera egin eta proiektu bihurtzen bada, orduan hartuko da jarrera politikoa, aurreproiektuei buruz hainbat zirriborro egin baitaitezke dagokion Lege Proiektua egon arte.

PPko Arturo Aldecoa jaunak honakoa adierazi du:

Azaldutako ezaugarriak dituen lege aurreproiektua denez, lege proiektu edo lege bihurtzekotan sortuko lituzkeen ondorioak kontuan hartuta, bere ustez komenigarria izango litzateke udalbatza honetan bertaratutako zinegotziek zeri buruz ari garen jakitea, bizkor-bizkor eta oporraldian udalei eragiten dien berrikuspena egin baita; izan ere, edukiak eta eskumenak kentzen zaizkie udalei eta, ahal izanez gero, aldundiei eta, ondorioz, euren ustez guztiz larria da hori. Hori bada benetako politika eta udalak bere eskumeneko alorretan erabakiak hartzeko botererik ez izatea eragingo du, udalak Gasteizko Kontseilaritzaren batean esango denaren sukurtsal huts bihurtuko direlarik. Beraz, euren ustez kezkatzeko moduko gaia da eta, horregatik pentsatu dute osoko bilkura honetan aztertuko zela. Alkateak dio bere ustez oraindik



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

ez dela unea; unea heltzen denean eztabaida guztiz gogorra izango da, hau badelako karga politiko handiko eztabaida udal batentzat, benetan eskumenak dituen ala sukurtsal hutsa den erabakitzeke baita.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate-udalburuak honakoa adierazi du:

Adierazi duenez, bat dator Arturo Aldecoa jaunak azaldutako arrazoieta batzuekin baina ez du gai hau eguneko aztergai-zerrendan sartu fase honetan aztertzea goiztiarra dela uste duelako, lege aurreproiektua baita oraindik.

Ondoren alkateak adierazi du ikus-entzuleetako batek hitz egiteko baimena eskatu diola eta nahi duena adierazteko baimena eman dio alkateak. Orduan, hitz egin du.

Eta 10:00ak direnean, Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta Idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkaria naizen honek.

OE
ALKATEA,

IDAZKARIA,